

2025-07-18 BARIKUA / 1.031. ZENBAKIA / 23. URTEA
DURANGALDEKO ASTEKARIA ANBOTO.ORG TOKIKOM

Izaskun Ellakuriaga kazetaria hil da

Gerediaga Elkarteko komunikazio arduraduna eta Bizkaia Irratiko esataria izan zen urte askoan. ANBOTOren aurrekaria izandako Eraz aldizkariko zuzendaria ere izan zen / 5



Garain Asto Trail proba lehiatuko dute zapatuan

/ 26



MAÑARIKO JAIK / 13



MALLABIKO JAIK / 16

"NIRI ETA ETXEBARRI JATETXEARI BIDE ASKO GERATZEN ZAIGU AURRETIK"

Etxebarri jatetxeko Mohamed Benabdallah-k munduko sommelier onenaren saria jaso du oraintsu The World's 50 Best Restaurants galan / 2-3

Mohamed Benabdallah
Etxebarri jatetxeko terrazan,
atzean Anboto mendia duela.





2.000 ardo botillatik gora dituzte Etxebarriko upategian.

"Gustuko duzun ardoa da onena, berdin du 10 edo 1.000 euro balio"

MOHAMED BENABDALLAH (ARGELIA, 1984) ETXEBARRI JATETXEKO SOMMELIERRA
Oraintsu munduko sommelier onenaren saria jaso du Turinen (Piamonte, Italia) egindako *The World's 50 Best Restaurants* galan. Apurka barneratzen dabilen lorpena da

Joseba Derteano ATXONDO

Mohamed Benabdallah-k kontuan hartzeko ibilbidea du: Quique Dacosta eta Mugaritz lako jate-txe arrakastatsuetan ibili ostean, Etxebarri jatetxera batu zen 2017an. Hala ere, ez du uste goia jo duenik: ardo onak bezala, denboragaz hobetzen jarraitzea du helburu.

Zer sentitu zenuen galan zure ize-na esan zutenean?

Hasieran ez nuen sinesten. Nire lankide eta ezagunak pozarren ikusten nituen inguruan, baina

ni ia *shock* egoeran nengoen. Denbora behar izan dut lortutakoa barneratzeko. Oso pozik eta esker oneko nago.

Kiniela batzuetan Etxebarri fabori-to zen lehenengo tokirako. Baze-bilen zurrumurru hori aurreko

"NEU ETORRI NINTZEN ETXEBARRIRA. EGON NAIZEN TOKI IA DENETAN NEUK JO DUT ATEA"

egunetan. Zelan hartu duzue beste behin bigarren geratzea?

Oso pozik gaude. Kinieletan urteak daramatzagu lehenengo posturako hautagaien artean: jatetxe hau, beste hori... eta Etxebarri. Jendearen memorian gaude beti. Laugarren urtez jarraian hiru onenen artean gaude. Eta azken hamarkada kontuan hartuta, gaur egun zerrendan dauden artetik gu gara Top 10ean mantendu garen bakarrak. Horri garrantzia handia ematen diogu, ibilbide bat erakusten

duelako. Denborak ematen duen perspektibagaz ikusiko da benetan orain lortzen gabiltzana. **Zer izan zen zure barruan ardoare-kiko interesa piztu zuen lehenengo txinparta? Badago gogoan duzun pasadizo edo momentu konkretu-ren bat?**

Ez dut uste momentu zehatz bat dagoenik. Ez nabil mundu honetan gertaera kontretu baten-gaitik edo nire patua hori zela-ko. Apurka etorri den zerbait da. Gauza batek hurrengora zaramatza eta gero eta barnera-tuago zaude mundu honetan.

2017tik Etxebarri jatetxean zabil-tza. Zure bila joan ziren ala zeu hurre-ratu zinen Etxebarrira?

Ni etorri nintzen Etxebarrira. Egon naizen toki ia denetan neuk jo dut atea. Lagun batek norbaiten bila zebiltzala esan zidan; Bittor Arginzonizegaz berba egin nuen eta hortik dator ondorengo guztia.

Zergatik batu nahi zenuen Etxeba-rrira?

Aurretik Mugaritzen nengoen. Toki zoragarria da, baina urte asko neramatzan han eta goia jo nuela sentitzen nuen, hau da, eman beharreko guztia eman nuela. Beste erronka bat behar nuen. Gainera, desberdina izan-go zen erronka bat nahi nuen, hutsetik hasteko modukoa. Etxe-barrin gastronomia, ardo es-kaintza, zerbitzua, bezeroak... diferenteak dira.

Sommelier bakoitzak bere egiteko modua du. Zein da Etxebarrin txer-tatu duzun zigilua?

Sukaldeagaz eskutik helduta joatea oso garrantzitsua da. Bi-latzen dudan beste ezaugarri bat hau da: bezeroari lurralde desberdinetako ardoa prezio nahiko lehiakorrean eskaintzea. **Zer kriterio erabiltzen duzu upate-girako ardoaren erosteko?**

Hainbat kriterio daude eta bat azpimarratu nahi nuke: aztertu ondo probatzen duzun ardo eta hurrengo urteetan izan dezakeen garapena. Beharbada ardo bat gaur ez zaizu asko gustatuko, baina bost urte barru oso ardo ona izango dela antzeman deza-kezu. Ekoizlea ezagutu, zonaldea eta mahastia ikusi, eta poten-

"BEZEROARI NIRE GOMENDIOAK EMATEN DIZKIOT, BAINA IDEIA ARGI BAT BADU, HOBE DA EZ TEMATZEA"

tziala ikusten diozu. Prozesu hori asko gustatzen zait.

Sarritan bidaiatzen duzu upategie-tara?

Bai, asko bidaiatu beharra dago. Nire laneko arlo garrantzitsua da. Italiara, Frantziara... Espai-niatik, bada, ardandegi-jabeak Etxebarrira bertara etortzen dira. Zorte horixe dugu eta lana apur bat errazten digu. Upategiei errespetu handia diet, euren lana asko baloratzen dut. Urtean aukera bakarra dute nahi duten ardoa egiteko. Bero handiegia egin badu, edo txingorra, edo izotza... agur. Arriskuak ditu eta ogibide oso konplikatuak da. **Kuriositatez, nora joan zara azke-nekoz?**

Ekainean Italian izan nintzen, bertako upategi bat bisitatzen. Ezagutzen dudan jendea da eta urteroko bisita egin nien, ardoen urtaldi berria ezagutzeko... eta ardo berri bat probatu nuen.

Zenbat ardo botila daude Etxebarrin? Nahi dituzun guztiak dira ala sartzen direnak?

2.000 edo 3.000 egongo dira, errez. Eta sartzen direnak dira, beti ere kriterioz aukeratuak.


Zelakoa da jatetxera datozen be-zeroekin duzun tratua?

Bezeroari neurria hartu behar diozu, noraino heldu nahi duen ikusi. Nire gomendioak emango dizkiot, baina ideia argi bat badu, hobe da gehiegi ez tematzea. Bezeroa bere familiagaz edo lagunekin gozatzen ari da eta jarrai dezala horrela. Ardoari izotz bat bota nahi diola freska-tzeko? Ondo dago. Coca-cola bategaz nahastu nahi duela? Bada, aurrera. Bere momentua da eta goza dezala ardo botilagaz berari ondoen iruditzen zaion moduan. Beti ez dut euren iritzia partekatzen, baina bere espe-rientzia ahalik atseginena izatea da garrantzitsuenak.

Zein da Bittor Arginzonizegaz duzun harremana eta zelakoa da?

Egunero ikusten dut. Sentsibi-litate handiko pertsona da eta oso lotura estua du Anbotogaz eta bere inguruagaz. Askotan joaten da mendira, ia egunero. Doanetan pozago eta biziago ikusten dut, ez doanetan baino. Denboraldi bat eman dezake bere ingurutik kanpora, astebe-te edo hilabete, baina hortik gora... Eta ulertzen dut, jaio zenetik ezagutzen duen ingurua zoragarria delako.

Zu ere Axpen bizi zara, jatetxearen ondoan.



Benabdallah Turingo galan, sommelier onenaren sariagaz. THE WORLDS 50 BEST



Etxebarri jatetxeko terrazan, atzean Anboto mendia duela.

Ez dut uste munduan horrelako toki askorik dagoenik. Egongelako leihotik Anboto ikusten dut egunero. Gogoan dut hasieran inpaktu handia eragiten zidala. Denboragaz normalizatu egiten duzu, baina denbora bat kanpoan eman eta berriro bueltatzen naizenean, hasierako sentazio hori eragiten dit berriro. Inguru honek lasaitu egiten nau, denbora geratu egingo balitz bezala da.

Ardoa zenbat eta garestiagoa orduan eta hobe da. Baieztapen honegaz ados zaude?

Ez. Gustuko duzun ardoa da onena, berdin du 10, 100 edo 1.000 euro balio duen. Gainera, ez da ardoei buruz asko jakin behar ardo bategaz gozatzeko. Lagunekin zaude eta ardo botila arin amaitu dela? Adieraz-

le ona da. Eta kontrara: asko balio duen ardoak ez bazaitu asebetetzen, beharbada ez da zure ardoa.

Ardoa bestelako edariekin nahastea pekatua da?

Niri ardoa bere horretan gustatzen zait, bakarrik, baina bakoi-tzak bere gustuak ditu eta errespeta-garriak dira.

Euskadin zelako ardoa dugu?

Gero eta hobe. Eta ez ardoare-na bakarrik, baita txakolinare-na ere. Belaunaldi berriak ondo prestatuta daude eta arriskatzeko prest. Horrez gainera, orain temperatura beroagoak daudela diote eta, etorkizunera begira, aukera bat izan daiteke txakolinarentzat, hobeto datorkiolako.

Musulmana zara eta islamak al-kohola edatea debekatzen du. Ze-lan daramazu alderdi hori?

Ondo daramat, naturaltasunez. Ez naiz praktikantea. Katoliko ez praktikanteak dauden modu berean. Eta badakit bizitzako eremu publikoa eta pribatua bereizten.

"GERO ETA ARDO ETA TXAKOLIN HOBEA DUGU EUSKADIN. BELAUNALDI BERRIAK PRESTATUTA DAUDE"

"NIRI ETA ETXEBARRIRI BIDE ASKO GERATZEN ZAIGU AURRETIK. ASKOZ GEHIAGO EMAN DEZAKEGU"

Zein da asko miresten duzun sommelier bat eta zergatik?

Hainbat daude. Esaterako, Villa Más jatetxeko Carlos Orta. Edo El Celler de Can Roca jatetxeko Josep Roca. Espainiatik kanpo-ko ardo askori atea ireki diete. Hemen probatzea gustatzen zaigu: Errioxa bat orain eta Barolo bat gero; Albariño bat bai, baina baita Borgoña bat ere. Hori abantaila bat da. Nire ustez, Espainian sarritan bel-durra izan dugu ardo marka handien parean jarri eta aurrez aurre lehiatzeko. Baina apurka beldur hori galtzen ari gara eta gero eta gehiago irteten gara nazioartera.

Zer amets edo proiektu geratzen zaizu kunplitzeko?

Asko geratzen zaizkit. Sekula ez nuen pentsatuko nagoen to-

kira helduko nintzenik eta are gutxiago 41 urte-gaz, baina ames-tez beteta nago. Niri eta Etxe-barri jatetxe-ari bide asko gera-tzen zaigu aurretik. Oraindino askoz gehiago eman dezakegu-la uste dut.

Nogaz hartuko zenuke gustura ardo bat?

Maite dudan edo aprezioa diodan edozeinegaz. Lagunekin, bezero bategaz, Bitorregaz, langileekin... elkarbanatu dut kopa bat. "Botilla hau une berezi baterako gordeta dut", pentsatzen da sarritan. Baina ahaztu egiten dugu inportanteena ez dela egun kon-kretu bat, konpainia ona edu-kitzea baizik, ardo botillak jen-dearen konpainian edaten dire-lako. Eta jende berezia aurki-tzeko ingurura begiratu besterik ez dago, asko aurkituko dituzu.

BULEGORAKO
ZIGILUAK
FOTOLITOAK

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

**Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea**

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

Durangoko Musika Eskolak teilatu berria du

Azken erremateen faltan, Durangoko Musika Eskolako teilatua berritzeko lanak amaierara ailegatu dira. Estalkia goitik behera aldatu eta eguzki-plakak ipini dituzte. Orain, lekualdaketa lanetan dabilta, ikasturte berria ohiko kokalekuan hasteko

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak amaitutzat eman ditu Bartolome Ertzilla Musika Eskolako teilatua berritzeko lanak, "azken erremateen faltan". Estalkia osorik aldatu dute, eta eguzki-plakak ipini dituzte sabaian, eraikinaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko. Era berean, bigarren solairuko zorua berritu dute, eta margoketa lanak egin dituzte eraikinaren osotasunean. Halaber, kanpoko sarbide berri bi prestatu dituzte: sarrerako hallean bata; auditorioan, bestea.

Durangoko Udalak urrian hasi zituen berritze lanak, teilatuak "egiturazko narriadura nabarmena" zuela-eta. Lanek iraun bitartean, musika-eskola Saibi kalera lekualdatu zuten, Udal Euskaltegia izandakora. Orain, obrak amaituta, musika-eskolak bere ohiko kokalekuan hasiko du datorren ikasturtea. Horretarako, altzari eta musika material guztien lekualdaketa egiten dabilta



Teilatua berritzeaz gainera, margotze lanak ere egin dituzte. DURANGOKO UDALA

egunotan. Mireia Elkoroiribe alkatearen eta Sara Oveja hiri-gintza zinegotziaren berbetan, teilatua berritzea "lehentasun nagusietako bat" izan da legegintzaldia hasi zenetik. Azpiegitura hobetzeaz gainera, "iraunkortasunaren eta efizientzia energetikoaren aldeko apustua" ere berretsi dute: "Oso hondatuta zegoen espazio bat ikastetxe moderno eta funtzional bihurtu dugu, irakasleen eta ikasleen beharretara egokitzeko", esan dute.

sunaren eta efizientzia energetikoaren aldeko apustua" ere berretsi dute: "Oso hondatuta zegoen espazio bat ikastetxe moderno eta funtzional bihurtu dugu, irakasleen eta ikasleen beharretara egokitzeko", esan dute.

576 eguzki-panel ipini dituzte Landako Guneko teilatuan

Teilatua iragazgaizteko lanak ere amaitu ditu Durangoko Udalak. Asfalto-oihala berritu dute, besteak beste



Eguzki-plakak Landako Guneko teilatuan. DURANGOKO UDALA

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak hainbat hobekuntza lan egin ditu Landako Guneko teilatuan. Batetik, sabaia iragazgaizteko lanak egin dituzte, asfalto-oihala aldatuta. Bestetik, 576 eguzki-panel ipini dituzte, energia garbia eta efizientzia energetikoa sortzeko. Azken horren zati bat Europako Next Generation funtsen bidez finantzatu dute, baita Energiaren Euskal Erakundearen dirulaguntzari esker ere. Proiektuaren aurrekontua, guztira, 420.940 eurokoa izan da. Hortik 190.771 laguntzak izan dira. Mireia Elkoroiribe alkateak azpimarratu du proiektua "aurrerapen esanguratsua" dela "udal azpiegituren etengabeko hobekuntzan". Udala "garapen iraunkorreko ereduagaz lerrokatuta" dagoela esan du.



Landako II kiroldegiko gimnasioa. DURANGOKO UDALA

Landako II kiroldegiko fitness makinak berrituko dituzte

Durangoko Udalak 1.221.000 euro bideratuko ditu kiroldegiko 105 makina eta 322 ekipamendu berritzera

Ekaitz Herrera DURANGO

Durango Kirolak entitateak kontratazio-prozedura hasi du Landako II kiroldegiko fitness makina eta ekipamendu guztiak berritzeko. Horretarako, alokairu-kontratu bat egingo dute, tresneria erosteko aukera zabalik utzita. Era horretan, udal baliabideen kudeaketa "eraginkorragoa" izango dela esan du udalak. Kontratuak 1.221.000 euroko aurrekontua du, eta material hornikuntzaz gainera, mantenu-plana ere badu jasota.

Guztira, 105 makina berrituko dituzte (gailu kardiobaskularrak,

indarra lantzekoak, pisu gidatukoak eta bankudunak daude horien artean). Era berean, 322 ekipamendu berrituko dituzte, hala nola plataformak, halterak, kettlebell pisuak, barrak, koltxonetak eta banda elastikoak. Instalazioak 2026 hasieran berritu gura dituzte. Iker Txertudi kirol zinegotziak esan duenez, orain arte "aldaketa puntualak" egin dituzte kiroldegian, baina makinek "arazo asko" zituztela-eta, "esku hartze osoa" egitea erabaki dute. Alokairu sistemari esker, "makinak pixkanaka eta modu eraginkorrean berritu" ahalko direla zehaztu du.

Ekolurraren azoka ekologikoak Durango bisitatuko du urrian

Elikagai ekologikoak eguneroko kontsumo bihurtu gura dituzte. Durangoko hitzordua urriaren 4an izango da

Ekaitz Herrera DURANGO

Ekolurrak azoka ekologikoak egingo ditu uda sasoiaren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako dozena bat herritan, tartean, Durangon: urriaren 4an izango da. Antolatzaileek herritarrengana gerturatu gura dituzte elikagai ekologikoak eta tokiko ekoizle txikien eguneroko lana, modu horretan, "elkagai ekologikoen kontsumoa eguneroko praktika" bihurtzeko. Gaineratu dutenez, azoka horien erronka nagusietako bat herritarren kontzientzia piztea izango da, egu-

neroko erosketa bakoitza aukera bat baita "ingurumena zaintzeko eta landa-eremuaren eta gure ekoizleen alde egiteko".

Ekolurrak emandako datuen arabera, gaur egun Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako nekazaritza-lurren % 6,7 lantzen dira era ekologikoan, nahiz eta kopurua urrutiko dagoen Europar Batasunak 2030erako ipinitako helburuetatik (% 25). Iaz, azalera ekologikoa % 18 hazi zen Autonomia Erkidegoan, eta % 4 ekoizle kopurua. EAEn 768k dihardute nekazaritza ekologikoan.

Izaskun Ellakuriaga kazetari iurretarra hil da

Gerediaga Elkarteko komunikazio arduraduna eta Bizkaia Irratiko esataria izan da urte askoan

Jone Guenetxea IURRETA

Bizkaia Irratiko goizetako ahotas itzali zen eguazten arratsaldean. Izaskun Ellakuriaga Bustinza (Iurreta, 1972) kazetaria 53 urte gaz zendu da. Gerediaga Elkarteko

komunikazio arduraduna izan da urte askoan. Durangoko Azokaren Komunikazio eta Marketin arduraduna ere bai. Bizkaia Irratian ere urteak eman ditu goizeko programan esatari.

Bestalde, ANBOToren aurrerakia izan zen Eraz aldizkarian jardun zuen hainbat urtez erredaktore eta zuzendari lanetan, eta ondoren komunikazioko beste esparru batzuetan aritu zen. Lekukom komunikazio agentzia sortu zuen Marijo Deogracias kazetariagaz batera. Kazetari sena izateaz gainera, euskaltzale amorratua zen.

Nekaezina eta langilea. Hedabide honek horrela gogoratu du Ellakuriaga, Geredia-



Izaskun Ellakuriaga.

ga Elkartearen bidez hainbat hamarkadatan ezagutu eta gero. Herrigintzako hainbat esparrutan jardun zuen: jai batzordean, bertsolaritzan...

Gerediaga Elkartek bere webgunean Ellakuriaga lankide eta lagunaren inguruan ondorengo testua kaleratu du: "Izaskun eskuzabala, ausarta eta nekaezina zen, oztopo denen gainetik pasioa eta lana arlo guztietan erakusten zuenetakoa; umore berezia zuen eta solaskide aparta zen".

Kokein, Luhartz, bakailaoa eta bolo txapelketa Goierriko jaietan

Asteburuan jaiak ospatuko dituzte Zaldibarko Goierri auzoan. Gaur hasiko dituzte, rap eta rock doinuak lagun

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Jai nagusiei erreleboa emanda, zaldibartarrek Goierriko jaietz gozatzeko aukera izango dute asteburu honetan. Gaur, barikua, Kokein, Hatxe, Lander Luque musika-jartzailea eta Jon Uri, K-ras eta Kr8 raperoak arituko dira. Zapatuan, bakailaoa eta paela txapelketak izango dituzte, baita antzerkia eta Luhartzen erromeria ere. Domekan, asto-probak jokatu dira, eta jaietako argazki-bilduma ikusita amaituko dituzte ospakizunak. Egitaraua *anboto.org* atarian ikus daiteke.



Ikuskizun bat Goierri. ZALDIBARKO UDALA

Palestinako errefuxiatuentzako dirulaguntza Zaldibarko Udalean

Udalak 3.000 euro eman dizkio UNRWari, errefuxiatu palestinarrak laguntzeko Nazio Batuen agentziari

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Palestinako herria jasaten dabilen sarraskiaren aurrean, Zaldibarko Udalak hango errefuxiatuak laguntzeko erabakia hartu du: 3.000 euroko dirulaguntza eman dio UNRWA erakundeari, hau da, Palestinako errefuxiatuak laguntzeko Nazio Batuen agentziari.

Momentu honetan, erakundeak 5 milioi palestinarr bano gehiagori eskaintzen die arreta, babesa eta defentsa. Horietatik 1,4 milioi Ekialde Hurbileko 58 kanpalekutan bizi dira, UNRWA

agentziaren bitartekaritzagaz. Kanpalekuok Palestinako Gazan eta Zisjordanian daude, batetik, eta Jordanian, Sirian eta Libanon, bestetik.

Eneritz Azpitarte alkateak berretsi duenez, "Zaldibarko Udalak, bere txikian, eskura dituen baliabide guztiak erabiliko ditu Palestinako herritarrei laguntzeko". Herritarrek deitu ditu "Palestinako herriari elkartasuna adierazten eta Israelen erasoak salatzen jarraitzera": "Ez dezagun beste aldera begiratu", esan du.

Adinekoentzako aldi baterako egonaldiak, atsedenaldea baino askoz gehiago

ENERITZ AGIRRE, PSIKOLOGOA

MAITE ETXEBARRIA, GIZARTE LANGILEA

IMQ Igurco Orue

Mendekotasuna duen pertsona bat etxean zaintzea ez da erraza. Zaintzailearen bizitza eta ingurunea aldatu egiten dira, era batera edo bestera. Zaintzeak beregaraz dakarren gehiegizko ahalegin emozional eta fisikoak eragina du familiaren bizitzan, lan- edo aisialdi-jardueretan, ibilaldietan eta, jakina, zaintzailearen osasunean, ez baitago egoera berri horretarako prest. Hori dela eta, familiek atsedena har dezaten egoitzetako aldi baterako egonaldiak oso baliagarriak dira.

Zaintzeko aholkuak zaintzailearentzat:

Utzi lagun zaitzaten eta zaindu zeure burua.

Egin gustuko dituzun gauzak. Bilatu egoera ororen alde ona. Ez zaitzez errudun sentitu.

Antolatu egin beharreko egitekoak.

Adierazi asertibotasunez zure emozioak.

Balorazio geriatriko osoa

Aldi baterako egonaldian, adinekoari balorazio geriatriko osoa egin ohi zaio. Espezialitate hauek diziplina anitzeko talde baten egiten du, geriatriko mediku espezialista bat buru izanda:



IMQ Igurco Orue egoitzaren kanpoaldea.

erizaintza geriatrikoa, fisioterapia, psikologia eta gizarte-lana. Balorazioaren emaitzen arabera, adinekoaren diagnostikoa egiten da, lau arlotan (klinikoa, mentala, funtzionala eta soziala). Diagnostiko horrek aukera emango du arazoak detektatzeko, hobetu beharreko arloak identifikatzeko eta zainketa-plan pertsonalizatua diseinatzeko; halaber, pertsonaren autonomia eta bizi-kalitatea ho-

betzeko edo iraunarazteko gomendioak emango dira.

Atsedenaldiaren ondoren, zentro soziosanitarioan alta ematean, txosten bat egiten da, zeinean zainketa-plan bat taxutzen den etxean zaintzen jarraitzeko, gaitasun kognitiboak eta funtzionalak mantentzeko helburuagaz; hala, aldi baterako egonaldia zaintzaz ikasteko aukera egokia izan daiteke.

Urkiola Hotela, Parke Naturalaren bihotzean

Urkiolako tontorrean dagoen eta Bizkaiko Gotzaitegiarena den etxea errentan hartu eta goitik behera eraldatu du Jasone Gezuragak. Hotela uztailaren 29an zabalduko duen arren, dagoeneko taberna eta jatetxea zabalik daude



Jasone Gezuraga Hotel aurrean.

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Musika doinu atseginagaz eta parke naturalaren patxadagaz hartu gaitu Jasone Gezuragak Urkiolan, esku artean duen proiektu berrian. Jasone Gezuragaren egutegian uztailaren 29a egun seinatua da. Egun horretan jaio zen Gezuraga eta bere proiektuek ere egun horretan ikusi dute argia. Orain 11 urte, uztailaren 29an, inauguratu zuen Garaiko Landetxea, eta 11 urte beranduago, uztailaren 29an, zabalduko ditu ateak Urkiola Hotela. "11 zenbaki magikoa denez, 11 urte eta gero, uztailaren 29an, beste proiektu bati ekingo diogu. Jaiotza berriak egun berean ematen ditut, horrela datak ez ditugu ahaztuko", esan du Urkiola Hotelaren arduradunak.

Hotelak uztailaren 29an ateak zabalduko dituen arren, taberna eta jatetxea dagoeneko irekita daude. "Urkiolara bertaratzen diren guztiek lekua dute gurean. Goizeko 9:00etan zabalitzen dugu taberna, jateko gozoagaz eta edari freskoagaz. Barran pintxorik eta erraziorik ez da falta", azaldu du. Bestalde, oraingo bazkariak ematen dituztela jakitera eman du, baina behin hotela zabaldukoan, afaltzeko aukera ere egongo dela. "Arratsaldetik aurrera Urkiolan ez da mugimendu handirik egoten, beraz, oraingo afaririk ez dugu ematen. Baina behin, hotela zabalitzen dugunean, gure beze-

roei afaltzeko aukera eskaini gura diegu, beraz, bertaratzen direnek ere izango dute afaltzeko tartea", gaineratu du.

Jatekoa eta edatekoa eskaintzeaz gain, bezeroei parke naturalaren inguruko informazioa ere eskainiko diete. "Informazioa behar duenari lagunduko diogu Anbora, Saibigainera zein Hiru Gurutzeetara joaten. Durangaldeko eta Araba inguruko naturguneak azaltzen saiatuko gara. Hori da eta ezagutzen duguna", gehitu du.

Logela eta apartamentuak

Santutegiaren ondoan eta Anboto mendiaren magalean dagoen hotelak zortzi logela izateaz gain, hainbat apartamentu ere baditu. Hori horrela, lasaitasunean bakarrik zein bikoteagaz egun batzuk pasatzeko edo talde handian egoteko aproposa dela dio Gezuragak. "Taldea handientzat leku aproposa da, horregaitik, ikastetxeekin hartu emanean gaude. Baita, mundu mailako txirrundulari taldeekin ere, beraien egonaldiak egiteko leku aproposa baita hau", bukatu du Gezuragak.

TABERNA 9:00ETAN ZABALTZEN DUTE; PINTXOAK, ERRAZIOAK ETA BAZKARIAK EMATEN DITUZTE

Mallabian gimnasioko kirol ekipamendua berrituko dute

Udal frontoiko kirol ekipamendua berritzeko 18.130 euro bideratuko ditu Mallabiko Udalak



Kirol ekipamendu berria.

M.Z. MALLABIA

Mallabiko Udalak udal frontoiko gimnasioa berritzeko eta hobetzeko zerbitzua esleitu du. Udaletik jakitera eman dutenez, kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko konpromisoaren barruan kokatzen da ekimena, herritarrek ariketa fisikoa egiteko aukera gehiago eta dibertsifikatuagoa izan dezaten.

Hobekuntza makina eta material osagarri berriak sartzean datza, gimnasioaren ekipamendua osatu eta indartzeko. Ildo horretatik, udalak instalazio modernoak eta egokiagoak eskaintzea du helburu, erabiltzaileen beharrak asetzeko eta ingurune irisgarriago eta funtzionalagoa sustatzeko.

Materialaren instalaziorako Mallabiko Udalak 18.130 euro bideratuko ditu.

Aisialdirako begirale titulua ateratzeko dirulaguntzak Abadiñon

M.Z. ABADIÑO

Abadiñon erroldatuta dauden 18 eta 35 urte bitarteko gazteek aisialdirako begirale titulua ateratzeko dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte.

Udaletik jakitera eman dutenez, 5.000 euro bideratuko dituzte dirulaguntza honetara, eta baldintza guztiak betez gero, gehieenez, formakuntzaren kostuaren erdia lagunduko dute diruz.

Dirulaguntza hau ekaineko osoko bilkuran onartu zuten. Dagoeneko Aldizkari Ofizialean argitaratuta dago, beraz, interesatuek abenduaren 1era bitartean egin ahal izango dituzte eskariak.

Gerediagako etxebizitza guztietan sareko ur hornidura dago

M.Z. ABADIÑO

Gerediagan falta ziren etxebizitza guztietara sareko ur hornidura iristeko obrak amaitu dituzte. Lan hauei esker, hamabi etxebizitzatara eta ukuilu batera eraman da ur hornidura. "Esku-hartze honekin, helburu garrantzitsuenetako bat betetzeko bidean aurrera egingen jarraitzen dugu: abadiñar guztiek ur-hornidura bezalako oinarriko zerbitzua euren etxebizitzetan izatea bermatzea", azaldu du Rafa Bilbao zinegotziak. Lanok 264.931 euroko aurrekontua dute, eta horren % 50 Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza sailetik jasotako dirulaguntzarekin finantzatu da.

OSTALARITZA GIDA



IURRETA

GAUARGI



Dantzari, 4 behe
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

 @gauargitaberna

ZORNOTZA

XIBERU



Zezilia Gallartzagoitia, 9
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

 Xiberu Taberna
 @xiberutaberna

DURANGO

BASA Eroateko janaria



Untzillatx, 9
Tel.: 747 421 104

Eguneko menua edonora eroateko prest, gure sukaldean bertako produktuekin prestatuatako plater gozo-gozoak. Begiratu gure instagramean.

 @basa.durango



DURANGO

OLAJAUREGI



Kurutziaga, 52
Tel.: 946 200 864

Eguerdian asteazkenetik igandera (13:00-15:30)

-Eguneko menua 19,90€

-Dastatzeko menua 45 €

-Karta

Gauean ostegunetik larunbatera (20:00-22:30)

-Mokadu karta

**TERRAZA ZABALIK: 12:00 - 00:00

 Hotel Olajauregi
 @hotel_olajauregi_jatetxea

Jacinto Poloren gorpuzkiak identifikatu dituzte Zornotzan

Zornotzako hilerrian desobiratutakoen artean, miliziano donostiarraren gorpuzkiak identifikatu dituztela jakinarazi du Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Giza Eskubideen Sailak; bosgarren fasea hasi dute uztailan, eta 22 gorpuzki atera dituzte

A. M. ZORNOTZA

2023an Zornotzako hilerrian desobiratze lanak hasi zituztenetik, 149 pertsonen gorpuzkiak berreskuratu dituzte. Oraintsu jakinarazi du Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Giza Eskubideen Sailak desobiratze lan horietako bosgarren pertsona baten gorpuzkiak identifikatu dituztela, Jacinto Polo Rios donostiarrarenak, hain zuzen ere. Jaurlaritzaren arabera, Polo 1936ko abenduaren 4an hil zen, Otxandioko frontean, 20 urte zituela; CNTri atxikitako 'Malatesta' bataloiko milizianoa zen. Aranzadi elkar-tea ari da indusketa lanak egiten.

Desobiratze lanen bosgarren fasea hasi dute uztailan. 149 gorpuzki berreskuratu dituzte orain artean, horietako 22 azken fase honetan. Orain arte, beste lau hildakoren gorpuzkiak identifikatu dituzte: Adolfo Cengotitabengoa Izurzaerenak, Jaime Iñiguez Nievaerenak, Enrique Contreras Linaresenak eta Benigno Hierro Pinedorenak. Identifikazioak egin ahal izateko, senideen DNA lagir-



Zornotzako hilerriko desobiratze lanak. IREKIA

nak baliatu dituzte; EHUko Biomics laborategi generikoa ari da lan horiek egiten.

Gogoraren deia

Bide batez, Gogora fundazioak dei egin die desagertutakoen

familiei, eurekin harremanetan jarri eta identifikazio prozesuak martxan jartzeko. Horretarako bi bide dituzte, posta elektronikoa erabilita (gogora@euskadi.eus) eta telefonoz (944 032 845).



Martitzenean hasi zituzten jaiak Zornotzan.

Zornotzarrak, jaietako lehen astebururako prest

Jardueraz beteriko asteburua dute aurretik zornotzarrek, martitzenean jaiak hasi ostean

A. M. ZORNOTZA

Asteburu potentia dute aurretik zornotzarrek. Izan ere, zapatuan ekitaldi jendetsuenetakoa den marmitako lehiaketa egongo da, besteak beste. Aurten, ia 5.600 lagunek eman dute izena, iaz baino 300 inguru gehiagok; 350 lagun taldeetan banatuta bazkalduko dute. Kontzertuak ere egongo dira asteburuan. Gaur, barikua, La otra oreja kontzertua eskainiko du Zubiondo parkean, eta Zelaia parkean, oster, Txistularien XXV. Kontzertua egingo dute; Gatibu taldea izango dute gonbidatu. Zapatuan, berriz, erro-

meria doinuak nagusituko dira, Gozategiren eta Zirkinik Bez taldeen kontzertuekin. Domekan, oster, Zornotzako Musika Bandak *Ameriketatik Euskal Herrira* kontzertu berezia eskainiko du.

Elkarbizitzarako deia

Martitzenean Itxaso Iriondo Karmengo Ama ikastetxeko zuzendariak eta Jon Larrea SD Amorebietako lehendakariak irakurri zuten jaietako hasiera emateko pregoia, eta bertan, elkarbizitzarako deia egin zuten, batez ere. "Errespetuan bizi behar ditugu jaiak, guztionak direlako".

Zaintzetan diharduten emakumeek botako dute txupinazoa Elorrion

Jaiei izena ematen dien Ferixa Nausikoetako abere, nekazaritza eta artisau azoka irailaren 7an izango da



Sabina Aizpuru, Itsaso Basauri, Iñaki Larrañaga eta Jone Guenetxea.

A.M. ELORRIO

Pertsonak zaintzen eta etxeko lanetan diharduten emakumeak izango dira Ferixa Nausikoetako jaietako hasiera ofiziala emango dietenak. Orain dela sei urtetik formazio bat egiten dihardute Osakidetza, Elorriko Berdintasun Sailak, Mugimendu Feministak, herriko kultur elkarteak eta zaintzetan jarduten duten emakumeek. Hartara, jaiak abiatzeko aukera kolektibo honi eskaini diote.

Egitarratuari dagokionez, adin guztietarako ekitaldiak prestatu dituzte. Tradizio handiko ekitaldiak izango dira, karrozen jaitsiera eta Sukalki Eguna, besteak beste. Musikari dago-kionez, Tatxers, Süne, Haize Arrosa, Nekktar, Against You eta Hofe izango dira ohol-tza gainean.

Berrizko Kulturaz Blai zikloak uztailan jarraituko du

Kultur zikloaren baitan, ekitaldi sorta antolatu dute Berrizen uztailerako eta irailerako; 23an da hurrengoa

A. M. BERRIZ

Berrizko Udalak antolaturiko Kulturaz Blai zikloak uztailerako eta irailerako emanaldi sorta du aurretik. Lehenengo biak igarota, Mexikoko folklore jaialdia izango da hurrengo hitzordua, uztailaren 23an, eguaztena; komentuan egingo dute jai mexikarra, 18:30ean. Euria eginez gero, oster, eskolako patioan egingo dute. Udalaren berbetan, aurtengo zikloa ere askotarikoa izango da, zirkua, antzerkia, musika edota sorkuntza tailerrak uztartzen saiatu dira eta. Eki-

menak doakoak izango direla nabarmendu dute, gainera.

Irailan, oster, beste hiru emanaldi egongo dira Berrizen. Irailaren 4an, hondarrezko irudi eta gazteluen tailerra egingo dute Berrizburun, 17:00etatik aurrera; 18an, berriz, Trapu Zaharrak *Eutsi Ramon* kale antzerkia eskainiko du; Santi Ugaldede eta Sergio Arrospide dira aktoreak ibilbide luzeko taldearen lan berri honetan. Irailaren 25ean itxiko dute zikloa, Yarleku konpainiaren *Numenak* antzezlanagaz.

Nahi zenuen lokala, espero zenuen bultzadarekin.

Lokalak Berrizen, 29.900 €tik aurrera.

Erreferentzia: 6074170



Servihabitaten lokal komertzialen aukera zabala ipintzen dugu, Berrizen, zure eskura, hainbat azalera eta erabiltzeko aukera askorekin.

Lokalak eraikinaren beheko solairuan daude, balio anitzekoak dira, erabat gardenak, eta erakusleihu zabalak dituzte, ikusgaitasuna eta argitasuna ematen dutenak. Gainera, sotoko solairuan aparkamendu-plazak daude, erosotasun handiago baterako.

Eraikina berriki altxatu da, **igogailuz hornituta dago, herriaren iparraldean lekutzen da,** skirrotutako ingurune batean, oinezkoentzako plaza baten parean, eta erdigunetik oso hurbil.



 **Servihabitat**

Hemen haste da dena.

Servihabitat.com | 902 15 01 02 | 673 673 200 Prezioa 2025eko abuztuaren 8ra arte da baliozkoa, eta egun horretatik aurrera aldatu egin daiteke. Kontatatu informazio eguneratua eta libre dauden higiekin zein diren 902 15 01 02 telefono-zenbakira deituz, edo www.servihabitat.com. Servihabitat hebidetan. Prezioetan zergak ez daude barneratuta. Fitxa honetan jasotzen den kontratuzko gainerako informazioak ez du kontratu izanarik, eta aldatu egin daitezke informazio horietan. Informazio hori egiaztatzeko Servihabitat Servicios Inmobiliarios, S.L. societateko bulegoetara jo dezakezu, hebidet honetan: Carretera d'Espugues, 223, pl. 8. 06940 - Cornellà de Llobregat.

anboto
kide



anboto
anboto
kide

apena **Maidor Sanchez Gaztelua**
Kide anboto **7.023**

www.anboto.org
anbotokide@anboto.org
946 816 500

**EGIN ANBOTOKIDE
ETA GOZATU
GURE ZOZKETA
ETA ABANTAILEZ!**

UZTAILEKO IRABAZLEAK

Basa take away jatetxeko bowl bat:
Arantza Elorza Gandiaga.

Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko
1/2 litroko 2 tarrina:
Jason San Juan Ikuza.

Xiberu tabernan bi gosari bikoitz:
Lutxi Alberdi Arruabarrena eta Nerea Alberdi Salterain.
Urkiola Hotela, egonaldia eta gosaria 2
pertsonentzako: Haizea Gaztañaga Aranzamendi.

Oporretara goaz,
irailean bueltatuko gara
zozketa eta sari
gehiagorekin.

Okm:

batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko
eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Santixan jaiak hasiko dira uztailaren 25ean

Santixau egunean altxatuko dute txopoa, ekimenez betetako hiru jai eguni hasiera emanez. Lehenengo egunean, urtero arrakasta izaten duen patatak hobeto nork zuritu txapelketa egingo dute eta iluntzean DJ Lamikizek jarriko du musika

J.D. ATXONDO

Axpeko jaiak ospatu zituzten lehenengo, Apatakoak ondoren, eta orain Santixakoen txanda heldu da. Uztailaren 25etik 27ra ekimenez betetako hiru egun antolatu dituzte. Santixau egunean, uztailaren 25an, altxatuko dute txopoa eta Andasto dantza taldearen saioa egongo da. Egun berean, 19:00etan, urtero arrakasta izaten duen patatak hobeto nork zuritu txapelketa egingo dute. Irabazleak bi laguntzako bazkaria irabaziko du Etxosten. Ondoren, patata tortillak egingo dituzte eta tortillarik onenak sari berezia izango du. Ondoren, DJ Lamikizek musika

jarriko du. Uztailaren 26an paela txapelketa egingo dute eguerdian eta herri bazkarian batuko dira. Azkenik, uztailaren 27an,

saiheski pintxoak egongo dira dastagai, 11:30eko mezaren ostean. Eguerdian mus eta briska txapelketak amaituko dituzte.



lazko jaietako argazkia.



Dantzariak Santa Agedan.

Angelman Sindromea elkartek eroango du Santa Agedako taberna

J.D. IZURTZA

Azken urteetan moduan, Durangaldeko Angelman Sindromea elkarteak kudeatuko du Santa Agedako taberna, Izurtzako jaien barruan. Udalak abiatutako lehiaketara elkarrekin horixe bakarrik aurkeztu zen. Izurtzako jaietako egun handi bat Santa Ageda ermitaren inguruan antolatzen dute urtero. Mezaren ostean, dantzak eta jai giroa egoten dira ermitaren inguruan.

Urmugaren kontzertu magikoa Angurreta arte espazioan

Harrobi zaharraren espazioan Et Incarnatus orkestragaz batera hainbat artistek parte hartu zuten martitzenean



Angurretako harrizko oholiza musikariz beteta.

Jone Guenetxea MAÑARIA

Pirata, Hatxe, Leturia eta Irati Arcelus, Eñaut Elorrieta, Janus Lester eta Xak taldea aritu ziren Angurretako kontzertuan.

Uztailaren 31ra arte martxan egongo da Urmuga. Bizkaian

lau mendi etapa egin dituzte, eta martitzenean, Mañarira iritsi ziren, Angurreta arte espaziora. Leku berezi bat kontzertu are bereziagoa entzuteko. Giro magiko horretan, jendetza bildu zen Urmugaren Bizkaiko kontzertuan.

Malakias, Lotxo eta otordu herrikoiak, Garaiko jaietan

Udalak eta jaiak antolatzeko herri-batzarrak ekitaldiz beteriko programa osatu dute Santixau, Santa Ana eta San Inazio jaiak ospatzeko. Hitzordurik herrikoien artean, dantzarien emanaldia, herri bazkaria, zirku-ikuskezuna eta tortilla txapelketa daude

Ekaitz Herrera GARAI
Garain den-dena daukate prest herriko jaiak ospatzeko. Asteburuan inauguratuko dituzte herriko jaiak, zapatuko Asto Trail lasterketaz eta domekako nagusien bazkariagaz eta iluntzeko bertso-saioagaz. Azken horretan, Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga, Andoni Egaña eta Iruri Altzerreka egongo dira bertsoetan, Maite Berriozabalen aginduetara. Uztailaren 24an, berriz, Donien Atxa altxatuko dute, dantzariak lagun; ondoren, Lumagorriren oilasko-pintxoak eta Lotxo taldearen erromeria izango dute. Jaietako hitzordurik herrikoienetako batzuk Santixau eguneko dan-

tza-saioa, Santa Ana eguneko tortilla txapelketa eta uztailaren 27ko herri bazkaria izango dira. Gautxorienek Berriztu taldearen

erromeria, rock kontzertuak eta gazte eguna izango dituzte. Ekitaldi guztiak anboto.org atarian daude ikusgai.



Garaiko jaien hasiera-ekitaldia, iaz. LUCIA MERUELO

Santamaña jaien egun handia ospatuko dute gaur Otxandion

Danborradaren arduradunek txupina bota ondoren, jai giroan murgilduko dira, uztailaren 27ra bitartean

A. Basauri OTXANDIO

Jai giroan murgilduta daude Otxandion, atzotik. Danborrada- ren arduradunek txupinazoa bota ondoren. Santamañez gozatzeko egitarau zabala landu du Jai Batzordeak, aurten herriko el- karte eta eragileen parte-hartzea- gaz indarberrituta. Santamaña eguna, egun handia dute gaur otxandiarrek. Udal Musika Ban- daren kalejirak abiatuko du egitaraua. Eta, Santa Marinaren omenezko meza ostean, herriko umeen pilota partidak jokatu- ko dira. Txistularien kalejirak, eta, Mutrikuko erraldoi eta buruhan- diek alaituko dute eguerdia. Urduri dantza taldearen saioak, eta, Taberna Ibiltaria eta Jotake taldeek borobilduko dute eguna. Umeen Eguna ospatuko dute, bihar. 6. mailakoek txupina bo- tata, puzgarri eta jolasek hartu- ko dute plaza. Atzetik etorriko



Musika Bandak abiatuko du eguna, gaur.

dira, sukaldaritza erronka, herri bazkaria, Otxandioko I. Pentlatoia, pilota partida profesionalak eta kuadrillen arteko play back-a. Altxa Porru! taldeak alaituko du gaua. Uztailaren 27an agurtuko dituzte jaiak. Bitartean egongo da zer gozatu (25. orria).

ABADIÑON, GEREDIAGA AUZOAN SALBADORE JAIK 2025

Abuztuak 2, Larunbata

13:00 Donien Atxa jasotzea eta txapligu hotsez jaiari hasiera ematea. Ondoren bertan batu garen guztiontzat, luntxa.

Plazarabatuaren artean, Euskadiko kalitate bermea duten produktuen poltsa bat zozkatuko da.

19:00 Tortilla Txapelketa ondorengo sarietara:

- 50 euro, gazta, sartagina, eta olio botila bat.
- 40 euro eta olio botila bi.
- 20 euro eta olio botila bi.

Partaide guztien artean, Euskadiko kalitate bermea duten produktuen poltsa bat zozkatuko da.

Izena ematea, 18:00etatik aurrera egin ahal da. Tortillak 20:00etan aurkeztu behar dira.

21:00 Erromeria: Luhartz taldearekin.

22:30 BERTSO SAIOA
Bertsolari gonbidatua, **JUAN MARI ARETIO**. Plaza txikietako bertsolari apala bezain handia.

- Ametz Arzallus.
- Andoni Egaña.
- Unai Iturriaga.
- Maialen Lujanbio.

Gai Jartzailea: Maite Berriozabal.

Saioa amaitu ostean, **erromeria** Luhartz taldearekin.

Abuztuak 3, Igandea

12:30 Hamabi Harri taldeko ospatadantzariak.

13:00 Herri kirolak erakustaldia.

- Izadi Agirre.
- Haritz Aranguren.
- Mikel Agirre.

Izadi Agirre, harrijasotzen bere marka pertsonala hobetzen ahalginduko da.

Igel Txapelketa, ondoko sarietara:

- 30 euro, garakurra eta gazta bat.
- 15 euro eta olio botila.
- 10 euro.

Parte hartzeko euro bat jarriko da.

Goizean zehar Lehen gilda lehiaketa ondoko sarietara:

- 40 euro, garakurra eta olio botila.
- 30 euro eta olio botila.
- 20 euro eta olio botila.

Partaide bakoitzak 10 gilda aurkeztu behar ditu nahitaez. Aurkeztutakoak bosnari dastatuko dira.

Aurkeztu diren guztien artean, Euskadiko kalitate bermea duten produktuen poltsa bat zozkatuko da.

17:00 Briska Txapelketa. Sariak:

- 120 euro, garakurra eta olio botila bi.
- 80 euro, garakurra eta olio botila bi.
- 50 euro, eta olio botila bi.
- 30 euro, eta olio botila bi.

Bikoteek 10 euro ordainduko dute parte hartzeko.

20:30 Erromeria, Ansozregi eta Larrañagarekin.

Abuztuak 6, Asteazkena SALBADORE EGUNA

12:00 Meza.
Meza amaieran **loroen bedeinkazioa** egingo da. Lora bana hartu ahal izango dute meza- rakoak. Agertu nahi duten guztiekin, familia argakia aterako da ermitan.

Ondoren Salbadore egunean ohi denez, **aurrekoa eta atzokoa** dantzatuko dute.

Ordu batak aldera Jai batzordearen bosnari **kangerejak** banatuko dira.

Goizean zehar **Paella Txapelketa** ondorengo sarietara:

- 75 euro eta Eusko Labelleko otzara.
- 50 euro eta gazta bat.
- 25 euro eta gazta bat.

Parte-hartzaileen artean, Euskadiko kalitate bermea duten produktuen poltsa zozkatuko da.

Goizean zehar **Lander eta Jon Ander** trikitilariak, plaza alaitzen.

17:00 Mus Txapelketa

 ondorengo sarietara:

- 150 euro txapelak eta olio botila bi.
- 100 euro garakurra eta olio botila bi.
- 50 euro eta olio botila bi.
- 40 euro eta olio botila bi.

18:00 Umeen jolasak

19:00 Euskal erromeria: Lorratz taldearekin.

21:00 Kantu afaria
Eusko Labeldun hamburgesa, entsalada, postrea eta kafea. Afaria 10 euro izango da, aurretik txartela erosita. Afariaren artean, Euskadiko kalitate bermea duten produktuen poltsa zozkatuko da. Txartela erosetako del 626 945 623 telefonora.

22:00 Andoni Ollokilegi, kontzertuan.

24:00 Jaien aldeko errifaren zozketa eta jaiari amaiera emateko **txokolata** beroa. Gora Salbadore jaiak 2025!!!

ETXE LAGUNTZAILEAK: ABADIÑOKO UDALA, ERENA erretegia, ETXETXO Inmobiliaria, SERAFIN Tailerrak, EDURNE arraindegia, EUSKO LABEL, MURUETA BASERRIA nekazaritza, SERRATU itxiturak eta BAQUE kafeak.

ANTOLATZAILEA: Gerediaga auzoko jai batzordea.

Parte hartu ANBOTOk antolatutako Udako Argazki Lehiaketan

Lehiaketan bi kategoria egongo dira. Bertan parte hartzeko azken eguna irailaren 15a izango da

M.Z. DURANGALDEA

Uda sasoia eta oporrak momentu paregabea izaten dira argazkilari senari bide emateko. ANBOTOn zuen argazkiak ikusteko irrikan gaude, eta gainera, argazkirik politenak saritu gura ditugu. Ho-

rregaitik dagoeneko martxan da Udako Argazki Lehiaketa. Aurten ere, arlo bitan aurkeztu daitezke argazkiak: eskualdeko argazkirik onena, eta eskualdetik kanpoko argazkirik onena. Parte hartu gura dutenek www.anboto.org

webgunean ipini beharko dituzte argazkiak edo 688 635 041 zenbakira bidali. Lehiaketan parte hartzeko azken eguna irailaren 15a izango da.

Sariei dagokienez, lau sari egongo dira: Durangaldeko argazkirik onenak smartbox bat, eskualdetik kanpoko argazkirik onenak euskal produktuz osatutako otzara bat, Durangaldeko argazkirik bozkatuenak Garaiko Landetxearen eskutik bertan egonaldia eta eskualdetik kanpokoak Databostek emandako aurikularrak.



lazko argazki irabazlea. JABI VIDAL

DURANGALDEA ASTEON

Bazkaria eta paella dastaketa Madalenako jaietan

DURANGO Auzo Alai elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu auzoko jaia girotzeko. Uztailaren 18tik 22ra ospatuko dituzte Madalenak. Uztailaren 18an jaietako txupinazoa botata emango diote hasiera jaei. Ostean, tortilla dastaketa egongo da. Zapatuan, berriz, paella dastaketa eta domekan, herri bazkaria egongo dira, besteak beste.

Trumoitte kultur elkarteak kamisetak kaleratu ditu

GARAI Garaiko Trumoitte elkarteak serigrafia tailerra antolatu zuen joan zen zapatuan, *Garai uda giroan* egitasmoaren barruan. Kamisetak serigrafiatu ahal izateko tresnak atondu zituzten frontoian, eta elkarreko logoagaz apaindutako kamiseta bana sortzeko tailerra egin zuten. Bertan batu ziren herritarrek Torontile proiektuko kideak izan zituzten azalpenetan eta tailerrean bidelagun. Trumoitteko kideek azaldu dutenez, kamisetaren bat eskuratu gura dutenek elkarteko kideekin hartu emanetan jarrita egin dezakete.

'Establezimendu lagunkoiak' martxan Elorrión

ELORRIO Elorrio Lagunkoia Txantxibiri elkarteko kideek 'Establezimendu lagunkoiak' ekimena aurkeztu dute, Elorrio herri atseginagoa egin eta zahartze aktiboa sustatzeko. Hain zuzen ere, 'Lagunkoiak gara' edo 'Taberna lagunkoiak' pegatina duten establezimendu edo tabernetan, adineko pertsonak komuna erabili ahaliko dute, ezer kontsumitu gabe. Proiektua, "herriko bi talderen arteko sinergiatik" sortu dela azpimarratu du Alazne Mendizabal Berdintasun zinegotziak.



Gaztetxeke kideen mobilizazioa Udako Gazte Egunean.

Durangoko Gaztetxeke auziperatua absolbitu dute

DURANGO Kaletik Gaztetxera dinamikako kideek jakinarazi dutenez, epaileak absolbitu egin du Montorretako marmol-fabrika zaharraren okupazioagaz lotuta auziperatutako durangarra. Gaztea ekainaren 25ean epaitu zuten, eta epaileak duela egun batzuk kaleratu zuen ebazpena, dinamikako kideek jakinarazi dutenez. Sententziagaz pozik daude Gaztetxeke kideak: "Argi geratu da borrokatzeak merezi duela, gazte eta langile borrokak merezi duela", esan dute.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarre edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

> anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta
eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano
Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



foru aldundia
diputación foral

LAGUNTZAILEAK

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

MAÑARIKO JAIK 2025



MAÑARIK
JAIK



2025



MAÑARIKO JAIK 2025

ABUZTUAK 14

12:30 Pitxitxiren harrera
Iturrietako ur deposituan

Momentua girotzen herriko
trikitilariak egongo dira

13:00 Txupinazoa, kanpai hotsa
eta Pitxitxiren igoera

Txupinazoa Kirikiño
abesbatzak botako du

14:30 Herri Bazkaria

Ostean: Igel eta Mus txapelketa

16:00 Egurrezko jolasak

18:30 Gazte Olinpiadak

22:30 Kontzertuak
KAOS ETILIKO
SKABIDEAN
MALAKIAS

4:00-6:00 Bitartean autobusa
ibiliko da etengabe Mañaritik
Durangora. Doan

ABUZTUAK 15

ANDRA MARI EGUNA

7:00 Garbiketa

10:00 Kalejira txistulariekin

11:00 Meza Kirikiño
abesbatzagaz. Ondoren:
Dantzariak



GOIENA

MAÑARIKO JAIK KONTZERTUA

Ruper Ordorikak kontzertua emango du abuztuaren 15ean.
Plazan, 22:00etan

12:30 Pilota Partiduak

4 ½ ko partidua:
IRIBARREN / CANABAL
Binakako partidua:
VICTOR – BERNAOLA /
LABAKA – ARBIZU

12:30 Puzgarriak haurrentzat

17:00 Karabina jaurtiketa
(Ateneo Cinegetico Mugarak
antolatuta)

18:00 'FURGONOLOGO: Bizitza
furgoneta batean' JULEN AXPE
umoristagaz

20:30 Txistorrada

22:00 RUPER ORDORIKA

ABUZTUAK 16

SAN ROKE EGUNA

MOZORRO EGUNA
GAIA: JAIK/FESTAK:
FESTARIK FESTA

11:00 Meza. Ostean: Dantzariak

12:00 Paella txapelketa

14:30 Paellak aurkeztu
eta sari-banaketa
Ostean: Bingo musikatua

18:00 Briska Txapelketa
(Errose Bustintza kultur etxean)

19:00 PUNTU KAKOTX
elektrotxaranga

21:30 Pitxitxiren agurra.
Plazan dantzariak eta koplak

22:30 ALTXA PORRU
erromeria



MAÑARIKO JAIK TXUPINAZOA

Kirikiño abesbatzak txupinazoa
botako du, Pitxitxiren igoeragaz
batera, abuztuaren 14an.
Udaletxeko balkoian, 13:00etan



GARATE

Mañondo
Baserria, 10
Tel.: 946 815 600
48213 Izurtza



CONSTRUCCIONES AMANTEGUI S.L.

E. B. Kirikiño kalea, 21
48212 MAÑARIA (Bizkaia)

URANGA

BASERRIKO OGIA



MANARIA

635 740 236



Kirikiño abesbatzako kideak.

Kirikiñok botako du txupinazoa Mañarian

Aurten 40 urte bete dituen abesbatzak emango die hasiera jaiei, abuztuaren 14an. Musika eskaintza zabala dago jaietan: Kaos Etiliko, Skabidean eta Malakias jaietako lehen egunean, Ruper Ordorika 15ean eta Altxa Porru erromeria 16an

J.D. MAÑARIA

Hilabete eskas falta da Mañariko jaiak hasteko eta dagoeneko prest dute egitaraua. Aurten Kirikiño abesbatzak botako du jaiei hasiera emango dien txupinazoa, abuztuaren 14an. Kirikiño 1985ean sortu zuten eta, beraz, aurten 40. urteurrena ospatzen dabil. Txupinazoa botatzeak "ilusio handia" egiten diela adierazi du abesbatzako zuzendaria den Itxaso Arrizabalagak, eta aurreratu du denen artean prestatuko dutela pregoia. Hurrengo egunean ere protagonista izango dira abesbatzako kideak, ohiturari eutsiz, 11:00etan hasiko den mezan parte hartuko dutelako elizkizuneko abestiak kantatuz.

Urtean zehar hainbat kontzertu eskaintzen ditu Kirikiñok. Esaterako, maiatzeko Kultur Astearen barruan *Kantuez, kontuez... urtea bota* izeneko kontzertua eskaini zuten Angurretan, Andoni Salamero olerkari eta esatariagaz eta Aitor Furundarena musikariagaz batera.

Musika eskaintza

Jaietan musika eskaintza zabalago da. Jaietako lehen

egunean Kaos Etiliko, Skabidean eta Malakias taldeek eskainiko dute zuzenekoak. Gauean, 04:00-06:00 artean, doako autobusa ibiliko da etengabe Mañaritik Durangora. Abuztuaren 15ean, Ruper Ordorika musikariaren txanda izango da. 40 urte baino gehiagoko ibilbideari errepassoa emango dio abeslari oñatiarrak. Musika eskaintzagaz amaitzeko, abuztuaren 16an, Altxa Porru erromeriak dantzarako gonbita luzatuko die mañariarrei.

Kirolak ere izango du tokia jaietan. Aingeru Bernaola mañariarrak bere sorterrian jokatu du, abuztuaren 15ean. Victor eta biek Labaka eta Arbizu izango dituzte kontrario. Atariko partiduan Iribarren eta Canabalek neurtuko dituzte indarrak lau eta erdiaren barruan.

**INGERU BERNAOLA
MAÑARIARRAK
BINAKAKO PARTIDUA
JOKATUKO DU
ABUZTUAREN 15EAN**

Gaztelu
CARPINTERIA
656 787 524
699 229 576

MAÑARIA HERRIKO DENDA
Ebaristo Bustinza Kirikiño, 9
Mañaria- 48212
Tel.: 611 57 0213
Astelehenetik barikura: 08:30 - 14:00 / 16:00 - 20:00 Zapatuetan: 08:30 - 14:00

ALBAÑILERIA Y CONSTRUCCIONES MOU S.L.
MOU
ERA GUZTIETAKO LANAK EGITEN DITUGU
GREMIOEN KOORDINAZIOA
construccionesmou@gmail.com
Tel.: 672 441 607

ERREKONDO
Jan da topa

Maderas Zugazagoitia y Agirre S.L.
Aldegoiena Auzoa, 2 -A
MAÑARIA
Tel/Faxa: 94 681 87 98
zuagi@hotmail.com

ARRI TOKI TABERNA
Mañaria
94 681 69 30

DURANGALDEKO NATUR ZIENTZIEN MUSEOA
CORBA
MAÑARIKO JAIK!
HONTZA
MUSEOA
Ebaristo Bustinza Kirikiño kalea, 13
MAÑARIA (Bizkaia) / TL: 94 621 65 55
www.hontzamusoea.eus

herriko taska
mañaria
Udaletxeko Plaza, 1
Tel.: 944 351 262

MALLABIKO JAIK 2025



MALLABIKO JAIK 2025

ABUZTUAK 14

UMEEN EGUNA

11:30-13:00 Mallabiko trikitilariak kaleak girotzen.

12:00-14:00 / 16:00-18:00 Umeentzako haur parkea herriko frontoian eta parkean.

18:00 Apar festa parkean.

19:00 Jaien hasierako txupinazoa udaletxeko balkoitik.

Ondoren kale animazioa
Hamarru elektrotarangagaz.

19:30 Txokolatada plazan (euria bada, parkeko aterpean).

21:30 Pilota partiduak Mallabia I Kirol Etxean.

Urrutikoetxea-Morgaetxebarria // P. Etxeberria-Tolosa. Ezkurdia-Iztueta // Elordi-Albisu (Masters Caixabank)

PILOTA PARTIDURAKO SARRERAK

Sarrerak abuztuaren 1etik 13ra salgai udaletxean 18 €. Langabe, ikasle, jubilatu eta pentsionistentzat 12 € justifikazio txartela erakutsita. Partidu egunean leihatila 21:00etan zabalduko da eta sarrerek prezio bakarra izango dute: 25 €

23:00 Erromeria Lehian taldeagaz plazan (euria bada, parkeko aterpean).

ABUZTUAK 15

ANDRA MARI EGUNA

11:00 Meza Jasokunde parrokian.

12:30 Mallabiko dantzariak herriko frontoian.

13:00-15:00 Erromeria ibiltaria EINGO taldeagaz.

17:00 Tute txapelketa Kontzejuzarrean.

Izen-ematea: 10 euro bikoteko SARIAK:

1. saria 120 € eta garaikurra
2. saria 100 €
3. saria 80 €
4. saria 60 €

17:00 Mallabiko GIZONEZKOEN XXXV. eta EMAKUMEZKOEN V. HARRI-JASOTZE SARIA Harri Txikia herriko frontoian

GIZONEZKOAK 100kg-ko zilindro zaharra / 100kg-ko bola
EMAKUMEZKOAK 62,5kg-ko zilindro zaharra / 62,5kg-ko bola

PARTE-HARTZAILEAK:

Bizkaia: Jon Gisasola (Zelai V), Mallabia. Eneko Bilbao, Kortezubi. Unai Osa, Ondarroa. Gipuzkoa: Aritz Aranguren (Norde), Azkoitia. Mikel Lopetegi (Urre), Zarautz. Xabat Olaizola, Zarautz.

Nafarroa: Hodei Amezkoa, Etxabakoitz. Unai Urkiola, Leitza Araba: Eider Garcia Durana, Baroja. Sara Jimenez de Aberasturi, Maeztu Bizkaia: Patricia Martin, Bilbo. Leire Olea, Gernika Nafarroa: Ane Cestau, Leitza.

SARIAK:

900 € garaikurra eta txapela
750 € eta garaikurra
600 € eta garaikurra
500 €
Gainerako parte-hartzaileentzako 300 €-ko dieta

19:30 'Ez da kasualitatea' bertso saio musikatu plazan (euria bada, elizpean). Bertsolariak: Ane Labaka, Maider Arregi, Eli Pagola, Miren Amuriza. Gai-jartzailea: Iruri Altzerreka Musikariak: Araitx Bizkai eta Oihana Landa.

22:30 Janus Lester parkean.

ABUZTUAK 16

SAN ROKE EGUNA

12:00 Meza Jasokunde parrokian.

11:00-14:00 PAELLA eta MARMITAKO lehiaketak plazan

Izen-ematea 11:30ean
XXIV. PAELLA LEHIAKETA eta XII. MARMITAKO LEHIAKETA OINARRIAK

Ez dago paella edo marmitakoa egiteko derrigorrezko osagairik. Marmitakoa 13:00etarako aurkeztu behar da eta paella 13:30erako, epaimahaiak dastatu eta sariak banatzeko. Talde bakoitzak bere sua ekarri beharko du, butanoa edo barbakoa, baina ezin da sua lurtean egin. Lehiaketa herriko plazan egingo da. Bazkarirako plater, edalontzi eta mahai-tresnak parte-hartzaileek ekarri beharko dituzte.

SARIAK:

MARMITAKOAK:

1.saria 110 €

2. saria 55 €

PAELLA:

1.saria 110 €

2. saria 55 €

Mallabiko trikitilariak animatuko dute giroa.

14:00 Paella eta marmitako lehiaketako sari-banaketa.

14:15 Jubilatuen bazkaria Kontzejuzarrean.

16:00 Tolin mariatxia jubilatuentzat Kontzejuzarrean.

17:30 Kuadrillen arteko jolasak Gazte Asanbladakoek antolatuta Saria: pintxotarako 20 txartel.

20:00 Txerri errea (pintxo bat, euro 1) eta sagardoa doan plazan.

20:30 Erromeria Luhartz taldeagaz plazan (euria bada, parkeko aterpean).

Ondoren DJ Maria Blessive parkean.



RECICLAJES METALÚRGICOS
JESÚS M.º CORDÓN, S.L.

Goitondo-Goikoa poligonoa, z/g- P3A - 6/8 pabilioia
48269 MALLABIA (Bizkaia) -
181 posta kutxa • 48260 ERMUA
Tel.: - Fax 943 174 581 - Mug.: 619 569 595



Hondakin ez arriskutsuen
kudeatzailea: eux/038/04



HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEK
KUDEATZAILE BAIMENDUA EUX/008/04



HIERROS & METALES
SAINZ

TXATARREN SALEROSKETA

Areitio gaina - 48269 MALLABIA • PK 58 - 48260 ERMUA
Tel.: 943 171 400
hierrossainz@hierrossainz.es

www.hierrossainz.es



- Bajak izapidetzea
- Garabien zerbitzuko bilketak
- Eusko Jaurlaritzako KUDEATZAILE BAIMENDUA
- Gehieneko tasazioa duten autoen salerosketa
- Balio-biriztaren amaieran deskutsatzeko tratamendua eta ibilgailuen kudeaketa
- Garabi zerbitzua 24 orduan, Euskal Herrian eta inguruetan
- Ordezko pieza erabilien salmenta

Mallabarrena poligonoa 10-12 Mallabia



946 175 490



632 812 666 / 632 754 180



BETEARTE

Hondakin
ez arriskutsuen
zaborteia

BI-3342 errep. Areitio garaia MALLABIA pk. 38
Tel.: 943 170 307 - Faxes: 943 176 160
info@betearte.com www.betearte.com



Janus Lesterrek kontzertua eskainiko du abuztuaren 15ean. JANUS LESTER

Janus Lester, Luhartz eta Lehian Mallabiko jaietan

Abuztuaren 14tik abuztuaren 16ra bitartean Mallabian Andra Mari jaiak ospatuko dituzte. Jaiei hasiera 19:00etan emango diote, udaletxeko balkoitik txupinazoa botata. Ondoren, Hamarru elektrotxaranga arratsaldea girotuko du

Maialen Zuazubiskar MALLABIA

Abuztuaren 14tik abuztuaren 16ra bitartean Andra Mari jaiak ospatuko dituzte Mallabian. Aurtengoan ere musikak tarte berezia izango du. Abuztuaren 14an, txupinazo egunean, Lehian taldeagaz erromeria egongo da. Abuztuaren 15ean, eguerdi-arratsaldea Eingo taldeak girotuko du, eta 22:30ean Janus Lester igoko da parkeko oholtzara. Abuztuaren 16an, berriz, Luhartz taldeak joko du 20:30etik aurrera plazan eta ondoren, DJ Maria Blessive ariko da musika jartzen.

Musika eskaintza zabalaz gain, adin eta gustu guztientzako ekin-tzak egongo dira aurtengo andramarietan. Abuztuaren 14an, umeen eguna ospatuko dute, eta egun osoan zehar, haur parkea egongo da, eta 18:00etatik aurrera, apar festa.

Andra Mari egunean, abuztuak 15, 19:30ean 'Ez da kasualitatea' bertso saio musikatua egongo da plazan. Bertsotan Ane Labaka, Maider Arregi, Eli Pagola eta Miren Amuriza arituko dira. Gai-jartzaile lanetan Iruri Altzerreka egongo da, eta musika jartzen Araitx Bizkai eta Oihana Landa.

Abuztuaren 16an, Paella eta Marmitako Lehiaketak egingo dituzte eta Kontzejuzarrean jubilatuen bazkaria egongo da. Arratsaldean, berriz, Tolin Mariatxia jubilatuentzat; Gazte Asanbladak antolatutako koadrillen arteko jolasak, eta 20:00etatik aurrera txerri erre pintxoak dastatzeko aukera egongo da.

Pilota eta herri kirolak

Bestalde, urterolez, kirolekitaldiek ere izango dute tarte jaietan. Abuztuaren 14an pilota partidua egongo dira. Urrutikoetxea-Morgaetxebarria bikoteak, Etxebarria-Tolosa bikotearen aurka jokatuko du. Ostean, Ezkurdiak eta Iztuetak Elordi eta Albisu izango dituzte kontrario.

Abuztuaren 15ean, berriz, Mallabiko Gizonezkoen eta Emakumezkoen Harri Jasotze Saria jokatuko da. Hauek izango dira parte hartzaileak: Jon Gisasola, Eneko Bilbao, Unai Osa, Aritz Aranguren, Mikel Lopetegui, Xabat Olaizola, Hodei Amezkola, Unai Urkiola, Eider Garcia Durana, Sara Jimenez de Aberasturi, Patricia Martin, Leire Olea eta Ane Cestau.

Excavaciones BOLIÑA
Mallabia - Bizkaia

• 629 340 410 •
• 618 954 280 •

excavacionesbolina@hotmail.es

Metales CSMA

METALEN
BERRESKURAPENA,
BIRZIKLAPENA
ETA KUDEAKETA

Tel.: 943 172 810
676 271 507

ZELAI

Marmol eta granitozko oragarrak
Hilerrietako lanak

MALLABIA
689 06 45 41
zelai@batxitxe.net

DECOMESA
DECOLETADOS Y MECANIZADOS, S.A.

**INDUSTRIARAKO
SOLUZIO
INTEGRALAK**

Maymu

Zure buru anitzeko
tornuak, beti prest!

Especialistak gara
berreraikitze, konponketa,
mantenu eta ordeko
piezen salmentan

Pol. Ind. Goitondo Behekoa 3/4
Mallabia - Bizkaia
Tel.: 94 657 00 94
maymu@maymusl.com
www.maymusl.com

URANGA
Autoak

Goitondo Ind. pab. 1
MALLABIA
Tel.: 943 17 97 17
Whatsapp 685 75 18 48

**IBILGAILUEN
KONPONKETA ETA
MANTENIMENDUA**

ondo pasau jaixetan!

RHEYDE
lanabesak s.l.

✓ PERFILATUAK
✓ MOLDAKETAK
✓ BERRESKURATZEAK

Goitondo ind., 3. pab. - 48269 MALLABIA
184 PK - 48260 ERMUA
Tel.: 943 170 898 - rheyde@rheyde.com

FOCS Industrias FOCs, S.L.

TROKEL PROGRESIBOEN
DISEINUA ETA FABRIKAZIOA
TRESNERIAREN FABRIKAZIOA
HARI BIDEZKO PIEZAK
ETA DOITASUN HANDIKO BARNERATZEA

Goitondo pol. - Goikoa, z/g
48269 MALLABIA
Tel.: 943 171 744
E-mail: focs@focs.es

Ekaitz Herrera MALLABIA

Aurten ere paella eta marmitako lehiaketan ikusiko zaituztegu?

Maribi Carrillo: Jakina. Jaie-tako egunik politena izaten da. Kuadrillan, lagunartean batzen gara. Izan ere, mallabitar asko herritik kanpo bizi da, eta egun horretan hemen egoten gara denok, herriko jaiak ospatzen. Aspaldiko lagunekin batzeko aitzakia paregabea da.

Angelines Carrillo: Hamazazpi urtegaz parte hartu nuen lehenengoz, eta hara: txapelketa irabazi nuen! Atera kontuak: hozkailuan eskura nituen hiruzpalau kontugaz egin nuen nire lehenengo paella, eta irabazi. Akorduan daukat amari, Logroñon zegoelako, eskutitza idatzi niola txapelketa irabazi nuela kontatzeko. Harrezkero, urtero parte hartzen dut.

Beraz, beteranoak zarete paellak kozinatzen.

A.C.: Hiru hamarkada baino gehiagoan parte hartu dut. Akorduan daukat, gaztetan Kanarietara joaten nintzela astebeterako, baina oporraldia antolatzen nuela andramarietan, bai ala bai, herrian egoteko.

"HAMAZAZPI URTEGAZ PARTE HARTU NUEN LEHENENGOZ, ETA IRABAZI EGIN NUEN"

"LUHARTZEN ERROMERIAN ERE IZANGO GARA, EZ DUGU SEKULA HUTSIK EGITEN"

"Paellena jaietako egunik ederrena izaten da"

ANGELINES CARRILLO ETA MARIBI CARRILLO MALLABIKO JAIZALEAK

Carrillo ahizpak saltsarik saltsa ibiliko dira paella eta marmitako txapelketan. Aurten ere Kontzejuzarraren ondoan egongo dira lehian, bakoitza bere kuadrillagaz. Sekula ez diote hitzordu gastronomikoari hutsik egiten



Angelines Carrillo eta Maribi Carrillo ahizpak.

M.C.: Ez dut uste sekula hutsik egin dugunik. Gainera, hemen bakarrik ez, Abadiñoako Gerediaga auzoko jaietara ere joaten gara paellak egitera. Lagunak ditugu han, Kepa Bengoa, adi-

bidez. Garaira ere joaten gara, patata tortilla lehiaketara.

Ondo sustraitutako hitzordua duzuela bistakoa da. Eta kokalekua?

A.C.: Ni plazan egoten naiz, Kontzejuzarraren pareko arbola bien

artean, beti hor.

M.C.: Ni, aldiz, elizpean egoten naiz, Angelinesen parean, kuadrillakoekin.

Eta ahizpa bien artean zeinek pilitu du sari gehien?

A.C.: Uste dut nik gehiagotan irabazi ditudala sariak. Paelletan, gutxienez, askotan.

M.C.: Nik, aldiz, tortilletan eta marmitako txapelketan hainbat sari lortu ditut, baita Gerediagako eta Garaiko txapelketetan ere. **Hainbeste sari irabazita, zein izaten da kozinatzeko sekretua?**

M.C.: Nik, normalean, arrain paella egiten dut. Fumeta egitea eta maitasunez kozinatzea da sekretu bakarra. Edozelan ere, prozesu arrunta da, ez dakit sekretu askorik dagoen.

A.C.: Haizea, suaren bizitasuna, paella artez eta aldapa barik ipintzea... hainbat faktore daude. Edozelan ere, zorte eta gustu kontua da. Niretzat, arroza solte egotea da gakoetako bat, baina sokarrat delakoak ere badu arrakasta.

Aurtengo jaiak zelan ospatuko dituzue?

M.C.: Txupinazoan egongo gara, baita askotariko animazioak ikusten ere. Andra Mari egunean, meza, dantzariak, bazkaria... izango ditugu. Herri kirolak ikustera ere joaten gara. Eta zelan ez: Luhartzen erromerian ere egongo gara dantzan. Horra ere ez dugu sekula hutsik egiten.

HEGAN RENT

Goitondo behekoa industrialdea, 1-1 partzela
48269 Mallabia (Bizkaia)
Tel.: 943 171 362



administracion@alkideba.net · www.alkideba.net

Furgoneta alokairu zerbitzu berria!





BIDALI ZURE
ARGAZKIA
688 635 041
ZENBAKIRA EDO
WEBGUNERA

UDAKO

ARGAZKI

LEHIAKETA

2 KATEGORIA, 4 SARI

DURANGALDEKO
ARGAZKIRIK
ONENA

EPAIMAIAREN SARIA
smartbox bat

PUBLIKOAREN SARIA
Garaiko landetxean egonaldi bat

DURANGALDETIK
KANPOKO ARGAZKIRIK
ONENA

EPAIMAIAREN SARIA
Databostek emandako aurikularrak

PUBLIKOAREN SARIA
Euskal Produktuz osatutako otzara



Olatz Salvador. MAITANE CAMPOS

"Oso harro nago prozesuagaz eta emaitzagaz"

OLATZ SALVADOR MUSIKARIA

MUSIKA Uztailaren 26an kontzertua eskainiko du Olatz Salvadorrek Elorrioko plazan, 22:30ean; 'Zainak eman' diskoaren aurkezpen biran murgildua dago donostiarra

Aritz Maldonado ELORRIO

'Aho uhal' lana kaleratu ostean, arriskatu eta bestelako elementuekin jolastea gura zuen Olatz Salvador musikariak 'Zainak eman' lanean. Iazko udazkenean kaleratu ostean, zuzenean aurkezten ari da orain.

la urtebete igaro da 'Zainak eman' kaleratu zenuenetik. Perspektibagaz, nola ikusten duzu prozesu hori?

Sortu nuenetik are denbora gehiago igaro da, hori dela eta, urruneko zerbait moduan ikusten dut prozesu hori bera. Jen-

deak orain ezagutu dituen kantutuek denbora piloa darabate nire buruan, eta aldi berean, gauza berriak sortzen hasteko gogoia dut. Askok disfrutatzen ari naiz abesti hauek zuzenean jotzen, baina nire gogoia bada, aldi berean, zerbait berria sortzen hastea, nolabait, publikoaren-gandik pauso bat aurrerago goaz. Sortzen hasteko gogoia daukat, baina denbora falta zait.

Esperimentaziotik jo zenuen sorkuntza horretan. Beteta geratu zinen?

Disko bakoitzean beti daude betetzen zaituzten gauzak, eta pendiente geratzen direnak. Eta horrek bultzatzen zaitu, nolabait, gauza berriak sortzera. 'Aho uhal' diskoagaz gertatu zitzaizdan, adibidez, pixka bat gehixeago arriskatzea; oraingoan bete dut hori, baina pendiente geratu zait sormen aldetik buruan nituen gauza batzuk probatzea, eta aldi berean, horrek motiba-

zioa ematen dit hurrengo pausohoriek emateko. Oinarritzkoa da egin ez dituzun gauzak probatzeko gogoia edukitzea beti, eta nire kasuan, behintzat geldiezi geratzeko balio dit. Badaude beste talde batzuk, behin beraien estiloa aurkituta, hortxe mantendu eta mugitzen direla. Oso errespetagarria da, baina ez da nire kasua. Musikagintzan ematen dudana bide honetan ahalik eta gauza gehien probatu eta ikasi nahi ditut, eta horrek ere eboluzio bat markatzen du.

Eta publikoak ulertzen du arrisku horiek hartzea?

Uste dut denetik dagoela. Bada, gero jende bat, nundik jo nahi izan dudana ulertu duena, eta esker-tu duena arriskatzeko hori. Ez delako hain erraza, agian ez gaudelako hain irekita pop eta rock doinuetatik irtetzen diren gauzetara. Nahiz eta badagoen jende oso kulturazale eta melomanoa ere. Eta eskertzekoa da, noski, jende horren babesa, baina nabaritu dut bestea ere; badago jendea ez dela gerturatu bira honetako kontzertuetara, ez zaiolako diskoa gustatu. Ni prestatu nintzen horretarako ere, ez da inori aurpegiratzen diodan zerbait, besterik gabe, bidea egin ahala jende bat galdu dezakezu eta jende berria hurbiltzen da. Bakarrik gertatzeko beldurra nuen, baina oso pozik nago ez delako hori gertatu. Oso eskertuta jarraitzen dut. Ez da erraza oreka hori mantentzea, eta iruditzen zait hemen oraindik marko horietatik irtetzeko ausardia beharrezkoa dela, batez ere publiko bezala. Inoiz entzuten ez ditugun gauza horiek entzutea falta zait. Nik egin dudana ez zait iruditzen hain esperimentalak denik, baina jende bati arraroa egin zaio, eta horrek zer hausnartu eman dit.

Norbera gustura geratzeak du garrantzia.

Musika sortzea oso bokazionala da, eta sorkuntzak norbera betekoa ez balu, ez luke zentzurik. Nire bidea behintzat hori da, ezin ditut gauzak kanpora begira bakarrik egin. Sortzen dudana nik nire momentuko egoeraren ispilu izan behar du.

Elementu elektronikoei presentzia irabazi dute lan honetan. Hori zuzenekoetara eramateak buruko min asko eman dizu?

Askok [barrez]. Gironako estudio batean egin genuen ekoizpena,

eta bertan sortu genituen soinu guztiak. Erronka handia izan zen gero ikustea soinu horiek nola egokitu eta prestatu zuzenekoetarako. Gogoratzen dut iazko udako egun eguzkitsuak lokalean maratoiak egiten pasatu genituela. Taldekideen laguntzari esker lotu nuen; Esti Beraza teklatu eta sintetizadoreetan batu zen taldera, eta berak ere nahikoa burukomin izan zuen soinu horietara gerturatzen. Ordu asko izan ziren, baina prozesuarekin eta emaitzarekin oso harro nago. Jendeak esaten dit, konplikatzea gustuko dudala. Hori da aukeratu dudana bidea, egia esan, nik neuk ere eskertzen dudalako gero musika zuzenean jotzen denean, bertan sortzen denean.

Diskoan Izaro Andres mallabitarra eta Leire Vargas durangarrak parte hartu dute. Nondik dator harremana?

Leire Vargas eta Oihana Aranagaz nengoela, buruan zein idea nituen komentatu nien, eta apur bat lehor nengoela, ez ninduela betetzen sortzen ari nintzenak. Nolabait esateko, SOS bat izan zen, ikusteko ea beraiek zer zuten esateko eman nien ideiak buruz; naturatik jo zuten eta asko gustatu zitzaizdan. Denbora bat utzi nuen arnasa hartzen, baina ostera ekin nionen, banekien single usaina zuela. Gainera, iazko udaberrian aurkeztu nuen kanta, eta sinbolikoki garrantzitsua zen niretzako, loratze bat erakusten zuelako. Bestalde, Izaro eta biok aspalditik gara lagunak eta askotan kolaboratu izan dugu bata bestearen kontzertuetan. Arraroa zena zen lehenago estudioan ez kolaboratu izana. Hasiara batean, beste batek kantatu behar zuen abesti honetan, baina aukera hori erori zela kontatzen ari nintzaiola 'neuk ingot' esan zidan. Eta egin genuenean, gogoia sartu zitzaigun elkarregaz gauza gehiago sortzeko, oso ondo pasatzen dugulako batera. Ez dugu baztertzeko etorkizunean zerbait jostalariagoa egitea. Pentsatu azkar batean, Eneko Sagardoy aktorea ere oinarritu zait, elkarrekin abestu izan dugulako zuzenean. Miren Amuriza bat, edo Igor Elortza ere etortzen zaizkit burura... Badaude hainbat sortzaile elkarregaz aritu garenak eta mires-ten ditudanak.

'Karmele', Zinemaldiko Sail Ofizialean

ZINEMA Eneko Sagardoy aktore durangarra da Jone Laspiurregaz batera 'Karmele' pelikulako protagonista; Asier Altuna zinemagilearen pelikula berriena Donostiako 73. Zinemaldian erakutsiko dute; irailaren 19tik 27ra bitarte izango da Zinemaldia

A. M. DURANGO

Irailaren 19tik 27ra bitartean egingo den Donostiako 73. Zinemaldiko filmak aurkeztu dituzte oraintsu. Tartean, Eneko Sagardoy protagonistetako bat izango duen *Karmele* egongo da; Txomin Letamendiren azalean sartuko da aktore durangarra. Drama historiko honek Kirmen Uribe idazlearen *Elkarrekin esnatzeko ordua* nobela du oinarri, eta Sagardoyz gainera, Jone Laspiurrek, Nagore Aranburuk eta Javier Barandiaranek parte hartu dute; Karmele Urrestiren eta Txomin Letamendiren bizitzak dira pelikularen ardatza. Erizaina eta musikaria ziren, hurrenez hurren, eta Parisetik hurbil ezagutu zuten elkar, 1937 inguruan, herbestean zirela; Caracasera ihes egin zuten gero, naziek Frantzia okupatu aurretik. Lehiak kanpo emango dute Altunaren filma, Sail Ofizialeko Emanaldi Berezietan. Urriaren 10ean estreinatuko dute zinema areto komertzialetan.



Jone Laspiur eta Eneko Sagardoy. DAVID HERRANZ

Antzerki-opera, Arriagan

Proiektu ugarietan murgilduta dago Sagardoy. Irailean, adibidez, *Moto - Membre Jesu Nostri* antzerki-opera berreskuratu du emanaldi bakarerrak. Dietrich Buxtehudek 1680. urtean konpo-

satutako *Membre Jesu Nostri* kontzertuaren antzezpena egingo dute, 2022an egin bezala; testuak Eneko Sagardoyk berak idatzitakoak dira. Bilboko Arriaga Antzokian izango da, irailaren 27an, eta sarrerak salgai daude.



Ezkurdi aretoa.

XXV. Durango Uria pintura lehiaketa martxan da

MARGOA Gai librea dute parte-hartzaileek, eta irailaren 9tik 28ra aurkeztu beharko dituzte proposamenak

A. M. ZORNOTZA

Durangoko Artisten Elkartek antolatzen duen Durango Uria pintura lehiaketaren edizio berria martxan da. Aurten, gainera, 25. edizioa du ekimenak. Gai librea dute parte-hartzaileek, eta beraien proposamenak irailaren 9tik 28ra aurkeztu beharko dituzte. Lanak urriaren 3tik 13ra bitartean erakutsiko dituzte Ezkurdiko Udal Aretoan. Urriaren 12an egingo duten ekitaldian eman- go dute irabazleen berri. Aurten, nobedade bezala, sei sari banatuko dituzte. Lehen saria

700 eurokoa izango da; bigarrena, 500 eurokoa, eta, 300 eurokoa, hirugarrena; horrez gainera, irabazleak erakusketak jarri ahalko du Ezkurdiko Aretoan, 2026an zehar. Gainontzeko hiru sariak tokiko artisten artean banatuko dituzte; 300 euroko hiru sari.

Durangaldeko Artisten Elkartea inklusioa eta sormena sustatzeko asmoz hasi zen Durango Uria pintura lehiaketa antolatzen. Urtean zehar ere, erakusketak antolatu ohi ditu, bai eskualdeko artisten lanekin, baita kanpokoen lanekin ere.



GAI LIBREAN

IGOR GALARZA INTXAUSTI KAZETARIA

Euskara, 2. atala: mahaitik kalera

Egunotan aldrebes samar dabil eguraldia: batzuetan bero, besteetan hotz; gau batzuetan leihoak irekita lotan, beste batzuetan mantatxoa gainetik botata. Ezin asmatu nabil jertsea aldean eraman edo ez erabakitzerakoan. Eta alderaketa nahiko arraroa (eta, seguruenik, jendearentzat inpertinentea), baina balekoa, egitera nator asteon. Inguruko denek esaten didate alderaketak egiten txarra naizela, baina niri balio dit. Ez da gai berri bat euskararena; azken aldiz ANBOTOn idatzi nuen zutabea, orain dela hilabete eta erdi, euskararen inguruan aritu nintzen. Bada, asteon hainbat hedabidek atera dute mahaigainera gaia, eta uste dut gaiak ez duela mahairik behar, kalea baizik.

Azterketa batek (berriz) euskararen erabilera eta euskaradun jende kopurua jaitsi egingo direla iragarri du 2036. urterako. Ez gaitu sorpresan harrapatzen, ezta? Gure ezkor senak elikatzen gaitu ezkorrago izan gaitzen, eta ez diot izan behar ez garenik, baina iruditzen

zait nahikoa dela. Negar egiteak balio du gure minaren berri emateko, eta nostalgiak balio du altxor bat dugula gogoratzeko; baina ezin gara biharamunean bezperako ogi gogorra arrosatzen ibili. Batzuk egin dute eta ari dira ahalegina egiten mundu globalizatuan euskarak leku bat izan dezan.

Netflix Euskaraz plataformak bere ibilbideari amaiera eman dio, "Instituzioek aurrera pausorik eman ez

EGUN BEROETAN, EGUN HOTZETAN, IZARARIK GABEKO ZEIN MANTAZ BETERIKO GAUETAN EGON BEHAR DU EUSKARAK

dutela" argudiatuta. Beno, argudiatuta-edo, agerikoa dena jendea azaltzeko asmoz. Herritar talde batek, orain dela 4 urte, euskara pantaila mota guztietara heltzeko ahalegina eta eskakizuna egiteko ekimena hasi zuen. Baina instituzioek, beste behin, ez dute babestu. Kike Amonarriz ETBko 'Linbo' saioan agertu zen, egungo gazteek kaleko euskararen erabileraren baitan egin zitzaizkion moldaera naturalak egiteko proposamena aurkeztuz. Norbere borondatek abiatzen den ekimena da, bai, baina proposamen bat da, praktika, ekintza duen proposamen bat. Eta hori falta zaio euskararen auziari: ekintzak, proposamenen praktika. Instituzioek ez dute egin, ez dira ausartu mahaitik kalera eramatera, eta hori behar du euskarak: Euskaldia ez da nahikoa, Korrika ez da nahikoa... egun beroetan, egun hotzetan, izararik gabeko zein mantaz beteriko gauetan egon behar du euskarak. Hori, noski, herriak euskara bizi dadin gura badu.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 18

DURANGO Erakusketa

Rosa Maria Sanchezen lanak.
Ezkurdi aretoan, uztailaren 27ra arte.

DURANGO Madalenak

Argazki erakusketa.
Tortillak batzea, 19:00etan.
Txupinazoa eta pregoia, 20:00etan.
Tortilla dastaketa, 20:15ean.
DJ Gaby, 21:00etan.
Madalena auzoan.

ELORRIO Kontzertua

Bascolombia (Oreka TX+ Phonoclórica).
Plazan, 22:30ean.

IURRETA Santamañiak

Meza Santua, 11.30ean. Jarraian, gozokiak, karramarroak eta edaria. XLV. Tortilla eta XXXIX. Igel txapelketak, goizean, Santa Mañako basilizan. LVI. Briska Txapelketa, 18:00etan. Jolasak eta pottokak, 19:00etan.
Amezketan.

ZALDIBAR Santamarinak

Meza eta nagusiei omenaldia, 12:00etan. Jaietako txapligua eta donien atxa altxatzea, 19:00etan. Sardinak eta bolo txapelketa 20:00etan. Hatxe + Kokein + Jon Uri_rras eta Kr8, 21:00etan. Gero, Lander Luque.
Goierri auzoan.

ZAPATUA 19

DURANGO Bisita Gidatua

'Heriotzaren kultura'. Izen-ematea: 94 603 39 38 / turismo@durango.eus.
Turismo Bulegoan, 10:30ean (gazteleraz) eta 12:30ean (euskaraz).

DURANGO Madalenak

Gisatua patatekin, 10:00etan. Jolasak eta photocalla (11:00-13:00). Kriskitin taldeagaz kalejira, 12:30ean. Paella dastatzea, 14:30ean (Rincón). Mus-tute txapelketa, 16:00etan (Rincón). Umeentzako herri kirolak, 17:30ean. Igel txapelketa, 18:00etan (Palentinoan). Versionarios taldea, 22:00etan.
Madalena auzoan.

DURANGO Ikuskizuna

'El peor espectáculo del mundo' (Zanguando Teatro).
Ezkurdin, 22:00etan.

ELORRIO Kontzertua

Pettiren XX ta bortz.
Plazan, 22:30ean.

GARAI Santixauak

VIII. Mendi Martxa, 08:30ean. V. Asto trail mendi-lasterketa, 09:30ean (luzea) eta 09:45ean (laburra).
Plazan.

IURRETA Santamañiak

Herri bazkaria. Ondoren, trikitilariak.
Amezketako eskolan, 15:00etan.

ZALDIBAR Santamarinak

Bakailao eta paella txapelketa trikitilariak girotua, 11:30ean (kazolen aurkezpena, 14:30ean). Mus eta briska txapelketa, 17:00etan. Antzerkia, 18:00etan. Gero, txokolatea. Buruhaundiak, 19:30ean. Luhartz taldea, 21:00etan. Bolatokia martxan, 21:00etan. Bolo txapelketa, 23:00etan.
Goierri auzoan.

DOMEKA 20

DURANGO Bisita gidatua

'Arkitektura zibila'. Izen-ematea: 94 603 39 38 / turismo@durango.eus.
Turismo Bulegoan, 10:30ean (euskaraz) eta 12:30ean (gazteleraz).

DURANGO Madalenak

Pintura lehiaketa eta aurpegi-margotzea, 12:00etan. Herri bazkaria, 14:00etan. Txokolatea eta madalenak, 17:00etan. Sua taldea, 18:30ean.
Madalena auzoan.

ELORRIO Dantza garaikidea

Lasala + HURyCAN + Kiko Lopez + Qabalum.
Plazan, 19:00etan.

GARAI Santixauak

Nagusien bazkaria, 14:00etan (Otea Loran elkartean). Bertso saioa: Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga, Andoni Egaña eta Iruri Altzerreka. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.
Elizabarrin, 19:00etan.

MAÑARIA Kontzertua

'The Chariot-Demo' (La Doctrina Secreta).
Errekondo tabernan, 19:00etan.

ZALDIBAR Santamarinak

Bizkaiko Bolo Txapelketa, 12:30ean. Asto-probak, 18:00etan. Ordu berean, ume eta gazteen herri-jokoak. Donien-atxa bota, 19:30ean. Argazki proiektzioa, 20:00etan. Jaietako azken traka, 21:00etan.
Goierri auzoan.

MARTITZENA 22

DURANGO Madalenak

Jaizaleren kalejira, 11:00etan. Meza eta omenaldia, 12:00etan. Luntxa, 13:00etan. Tabira Udal Musika Banda, 19:00etan (Plateruen Plaza).
Madalenako ermitan.

EGUAZTENA 23

BERRIZ Dantza

Mexikoko Folklore Jaialdia.
Konbentuan, 18:30ean.

EGUENA 24

ELORRIO Kontzertua

Irati eta Ekhiñe.
Portalekuan, 21:00etan.

GARAI Santixauak

Donien Atxa jasotzea, 19:00etan. Ezpatadantzarien azken entsegua eta Lumagorri oilasko pintxoak. Lotxo taldea, 22:30ean.
Plazan.

BARIKUA 25

ATXONDO Santixako jaiak

Meza, 11:30ean. Gero, Andasto dantza taldea, eta, txopo apaindu eta altxatzea. Porra txapelketa, eguerdian. Briska txapelketa eta jolasak, 17:00etan. Patata-zuritze txapelketa, 19:00etan. Afaria DJ Lamikizek girotuta, 20:00etan.
Santixa auzoan.

DURANGO Bakarriketa

'Katana' (Ana Goitia).
Benita Uribarrena parkean, 22:00etan.

ELORRIO Kontzertua

Arima Soul taldea.
Arexpagotxaga lorategian, 20:00etan.

GARAI Santixauak

Kalejira txistulari, dantzari eta agintariekin, 10:30ean. Meza, 11:00etan, San Migel elizan. Jarraian, Santiagoren irudiaren ohiko prozesioa Elizabarrira, *Agintariena* eta *Gernikako arbola* dantzatzuz. Ondoren, ezpatadantzariak. Erregelen erakustaldia, 18:30ean. Moonshinerds, Nekktar eta Garraio, 23:00etan.
Plazan.

ZAPATUA 26

ATXONDO Santixako jaiak

Eguerdian paella txapelketa Igel txapelketa, 13:00etan. Herri bazkaria (bazkalostean, bingoa). Valdes eta Hektor Folk, egun osoan. Mus txapelketa, 19:00etan.
Santixa auzoan.

ELORRIO Kontzertua

Olatz Salvador.
Plazan, 22:30ean.

GARAI Santixauak

Kalejira txistulari, dantzari eta agintariekin, 10:30ean. Meza, 11:00etan, Elizabarrin. Jarraian, Santiagoren irudiaren ohiko prozesioa parrokiara, *Agintariena* eta *Gernikako arbola* dantzatzuz. Ondoren, gizonen eta emakumeen erregelak. Tortilla txapelketa, 18:00etan. Berritzuta taldea, 22:30ean.
Plazan.

DOMEKA 27

ATXONDO Santixako jaiak

Meza, 11:30ean. Mus eta briska txapelketak (finalak), 13:00etan. Otzararen zozketa, 14:30ean.
Santixako auzoan.

ELORRIO Kontzertua

'Sustraiaren matxinada' (Gorka Hermosa eta Garikoitz Mendizabal).
Arexpagotxaga lorategian, 19:00etan.

GARAI Santixauak

Xake txapelketa eta erakustaldia, 10:30ean. Herri kirolak, 12:30ean. Bazkaria, 14:30ean. Gero, Eingo taldea.
Plazan.

ZINEMA

ABADIÑO (AIRE LIBREAN)

MUNTSARATZEKO DORRETXEAN

El Carné

Barikua 18: 22:00.
(euria bada, Probalekuan)

TRAÑA PLAZA

Barbie

Eguena 24: 22:00.
(euria bada, Traña-Matiena eskolako aterpean)

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Sé lo que hicisteis el último verano

Barikua 18: 18:00, 20:30.
Zapatua 19: 17:00, 19:00, 21:30.
Domeka 20: 17:00, 19:30.
Astelehena 21: 17:45, 20:15.
Martitzena 22: 17:45, 20:15.
Eguaztena 23: 19:00.

Voy a pasarmelo mejor

Barikua 18: 18:00, 20:30.
Zapatua 19: 17:00, 19:30, 21:30.
Domeka 20: 17:00, 19:30.
Astelehena 21: 18:00, 20:15.
Martitzena 22: 18:00, 20:15.
Eguaztena 23: 19:00.

Pitufos. La aventura se tiñe de azul

Barikua 18: 18:00, 20:30.
Zapatua 19: 16:45, 19:30, 21:30.
Domeka 20: 17:00, 19:30.
Astelehena 21: 18:00, 20:15.
Martitzena 22: 18:00, 20:15.
Eguaztena 23: 19:00.

TABIRA AUZOA (AIRE LIBREAN)

Gru 4

Eguena 24: 20:00.

ASTELEHENA 28

GARAI Santixauak

Umeentzako jolas parkea. Briska txapelketa, 17:30ean.
Plazan (11:00-13:00 / 17:00-19:00).

MARTITZENA 29

GARAI Santixauak

Umeentzako jolas parkea. Briska txapelketa, 17:30ean.
Plazan (11:00-13:00 / 17:00-19:00).

EGUAZTENA 30

GARAI Santixauak

Gazte bazkaria, 14:00etan. Ginkana. Malakias, Mikosis+Rally-48, 23:00etan.
Plazan.

EGUENA 31

GARAI Santixauak

Meza, 11:00etan. Dantzak eta igel-jokoa. 'Zirkoteke' (Zirkugintza), 18:00etan. Asto probak, 18:30ean. Herri-afaria, 21:30ean.
Plazan.

ZORNOTZAKO JAIK 2025

UZTAILAK 18

13:00 Gazteen kalejira Merhezi Taldeagaz. Ant.: Zornotzako Gazteak. Herritik zehar

15:00 Gazteen arteko bazkaria eta bazkalostean Maruxak. Ant.: Zornotzako Gazteak. Zelaieta parkea. *Euria bada Amorebieta IV frontoian

18:00 Kaleko musika Ilargi Txaranga. Ant.: Zornotzako Gazteak. Luis Urrengoetxea

20:30 Txistularien XXV. Kontzertua. Artista gonbidatua: GATIBU Ant.: Udazken txistu taldea. Zelaieta parkea

22:30 Kontzertua La Otra Oreja. Zubiondo plaza

UZTAILAK 19

10:00 Basket 3x3 Ant: Zornotza Saskibaloi taldea. Zubiondo parkea

10:30 Marmitako lehiaketa. Herritik zehar

11:00 Umeentzako bolo txapelketa. Ant.: Club bolos Zornotza. Gure Kirolak bolatokian

12:30 ZORHONTZA ibiltaria Triki Piu eta Areatzako erraldoekin. Herritik zehar

15:30 Karaoke ibiltaria sound. Zelaieta parkea/ Euskal Herria plaza/ Harrison parkea

16:00 Karaoke ibiltaria. Gernika plaza/Andra Mari Plaza

16:00 Disko festa ibiltaria Bayo Show. Arraibi plaza/San Juan Kalea

18:00 DJ Fardy Ant.: Gernika plazako ostalariak, Gernika plaza

21:00 Karmenetako XIII. Bolo Txapelketa. Ant.: Club bolos Zornotza. Gure Kirolak bolatokian

21:00 Kontzertua Gozategi. Erromeria Zirkunik Bez. Zubiondo plaza

22:30 Orkestra En Esenzia. Zelaieta parkea

UZTAILAK 20

10:00 XLIII. Xake Txapelketa Agustin Zamakona Memoriala. Ant.: Club de ajedrez Zornotza Herriko plaza

10:00 Motorren topaketa. Ant.: Lanzero Classic. Gernika plaza

11:00 Euskal Herriko Artzai Txakurren Txapelketa. Ant.: Artxate elkarte. Jauregibarria parkea

12:00 Arku-tiroa. Ant.: Ostadar. Jauregibarria

17:00 Bizikleta Eguna. Ant.: Urgozo-iturria txirrindulari elkarte. Zubiondo parkea – Gure Kirolak

20:00 Kantakatilu kantuan. Luis Urrengoetxea

22:00 Kontzertua Ameriketatik Euskal Herrira Zornotzako Musika Banda. Artista gonbidatua: Ainara Ortega. Zelaieta parkea

UZTAILAK 21

12:00 Umeentzako tailerra Perkusioa/Batukada. Zelaieta zentroa

16:00 Gazteen Arteko Piragua Jaitsiera. Ant.: Zornotzako Gazteak. Ibaizabal erreka

19:00 Mus Txapelketa. Ant.: Belatxikieta elkarte. Zelaieta parkea

20:00 Kontzertu akustikoa Blues Boys. Ant.: Laixie txosna elkarte. Zubiondo parkea

21:00 Kale antzerkia testurik gabe. Art Ilusio. Markeliñe. Ogenbarrena *Euria bada Gure Kirolak frontoian

21:00 Pintxada Navajita Suárez – Kimo Soundz. Ant.: Laixie txosna elkarte. Zubiondo parkea

UZTAILAK 22

12:00 Umeentzako tailerra Perkusioa/Batukada. Zelaieta zentroa

13:00 Karropotea. Ant.: Laixie txosna elkarte. Herritik zehar, Harrison kaletik abiatuta

15:00 Txosnarien bazkaria. Ondoren Larru eta Lagunak. Ant.: Laixie txosna elkarte. Zubiondo parkea

19:00 Kale antzerkia gazteleraz. La última y nos vamos. Trapuzaharra. Herriko plaza. *Euria bada Gure Kirolak frontoian

19:00 Erromeria Begibide. DJ Pary&Tiza. Ant.: Laixie txosna elkarte. Zubiondo parkea

UZTAILAK 23

12:00 Umeentzako tailerra Perkusioa/Batukada. Zelaieta zentroa

18:30 Priscila Reinas de Nafarroa Ant.: Nafarroa zentroko erabiltzaileak eta langileak. Zubiondo plaza

19:30 Gazteen arteko Play Back Lehiaketa Ant.: Zornotzako Gazteak. Zelaieta parkea

UZTAILAK 24

11:00-14:00 / 17:00-19:00 Puzgarriak eta joko inklusibo eta irisgarriak. Ogenbarrena. *Euria bada Gure Kirolak frontoian.

21:30 Danborrada. Ibilbidea: Txiki Otaegi, San Pedro, San Miguel, San Juan, Nafarroa, Ibaizabal, Gudari, Herriko plaza Ant.: Zornotzako Musika Banda

23:00 Kontzertua Bulego. Zubiondo plaza

23:00 Kontzertua Mecedades. Zelaieta parkea

UZTAILAK 25

Goizean Baserritarren azoka. Ant.: Enba. Zezilia Gallartzagaitia

10:00 Kittu Maratoia. Herritik zehar.

Tabernaz Taberna: 10:00 Larrea auzoa **10:40** Gudari kalea **11:00** Zelaieta parkea – Harrison plaza **11:30** Ixer – San Pedro **12:15** Zezilia Gallartzagaitia **13:15** Urbano Larruzea – San Migel **13:30** Gregorio Mendibil – San Juan **14:00** San Migel – Zezilia Gallartzagaitia **14:30** Andra Mari plaza **15:15** Gernika plaza **16:15** Jauregibarria parkea **16:30** Jauregizahar **16:45** Andrandi **17:15** Arraibi plaza – San Juan **17:30** Konbenio plaza – Kalbario plaza **18:00** Sabino Arana **18:30** Zubikurtze – Zubipunte **19:00** Ogenbarrena **20:00** Txiki Otaegi – Luis Urrengoetxea

11:00-14:00 / 17:00-19:00 Puzgarriak eta joko inklusibo eta irisgarriak. Ogenbarrena *Euria bada Gure Kirolak frontoian

12:00 Musika kalean Triki Piu. Gernika Plaza/ Andra Mari Plaza/ Zezilia Gallartzagaitia

14:15 Aitite-Amamen jaia. Pertsona nagusien bazkaria. Izena emateko: Nafarroa zentroa. Amorebieta IV frontoia

13:45 Ateen irekiera

14:15 Udabarri dantza taldea

15:00 Triki Piu

16:00 DJ Koldo

18:00 Gazteen arteko herri kirolak. Ant.: Zornotzako Gazteak. Herriko plaza

22:15 Su artifizilak. Jauregibarria

22:45 Kontzertua Zea Mays - Vithy DJ Zubiondo plaza

22:45 Kontzertua Hola Raffaella Zelaieta parkea

UZTAILAK 26

09:00 Plater-tiroa. Ant.: Errekamendi. Boroa

10:00 Kotxeen Topaketak. Ant.: Lanzero Classic. Ogenbarrena

11:30-14:00 Txitatoki Zirkus. Umeentzako zirku azoka ikuskizuna. Ogenbarrena. *Euria bada Gure Kirolak frontoian

16:00 Amorebieta Etxanoko VII. Duatloi Txikia. Ant.: Amorebieta

Etxanoko Triatloi taldea. Zelaieta parkea

17:30 Emakumezkoen Pilota Partidu Profesionalak/ Udako Master Laboral Kutxa Torneoa. Etxegarai-Bertiz vs Salsamendi-Erasun. Zabaleta-Oses vs Ibarrola-Mendizabal. Amorebieta IV frontoia

18:00 Umeen Tanborrada. Ibilbidea: Ibaizabal, Nafarroa, San Juan, San Miguel, San Pedro, Luis Urrengoetxea, Larrabide, Karmen kalea, Herriko plaza Ant.: Zornotzako Musika Banda

22:00 Kontzertua Isabel Aaiún. Zelaieta parkea

23:00 Kontzertua Rulo Y La Contrabanda. Zubiondo plaza

UZTAILAK 27

MOZORRO EGUNA: ZINEMA

11:00 Ontzi-Modelismoaren erakustaldia. Ant.: Bilbo Model Club. Jauregibarria

18:00 Gazteen Txallengeko mozorro desfilea. Ant.: Zornotzako Gazteak. Zubiondo parkea - Ibaizabal kalea- Gudari kalea- San Pedro- Luis Urrengoetxea – Euskal Herria plaza

18:30 Umeentzako tailerra, perkusioa (kalejirarako). Gure kirolak

19:30 Zornotza11 Kolore eta ZORHONTZAren agurra. Aniztasunaren kalejira. Jauregizahar - San Miguel kalea- Herriko plaza

20:00 ZORHONTZAREN AGURRA. Parte-hartzaileen erakustaldia Ant: Udazken Txistulariak, Zornotzako Musika Banda, Triki Piu, Areatzako Erraldoiak, 11Kolore, Zornotzako pentsionistak, Ongi Etorri errefuxiatuak, Juravca, ZABE, Novisi elkarte, Sorginkada batukada feminista... Herriko plaza

20:30 Kaleko musika Burrumba Elektrotzaranga. Luis Urrengoetxea

22:00 Very Txarrak - Akerbeltz. Zelaieta parkea

OTXANDIOKO JAIK 2025

UZTAILAK 12

GAZTE EGUNA

13:00 Txupinazoa Gaztetxean.

15:00 Bazkaria.

18:00 Olinpiadak.

22:00 Kontzertuak Gaztetxean:

Lukiek
Mirotz
DJ Yiyi

UZTAILAK 17

15:00 Herri bazkaria.

18:00 Meza Santua.

18:30 Ohiko Salve Regina abestuko da Oihandi abesbatzagaz batera.

18:55 Soinubil eta txistulariekin batera “Gora Otxandioarrak” abestia.

19:00 Danborradan antolakuntzan urteetan ibili direnak botako dute txupina. Jarraian danborrada.

20:00 Otxandioko presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea plazan. Giza Eskubideen Udal Batzordeak deiturik.

20:30 Eusko Label haragi pintxoak.

22:30 Erromeria Joselu Anaiak taldeagaz.

UZTAILAK 18

SANTAMAÑA

11:30 UDAL MUSIKA BANDAREN kalejira.

12:30 Meza nagusia Santa Marinaren omenez.

13:00 Herriko umeen pelota partiduak. Illuntxo pilota elkartearen eskutik.

13:30 'Kaleik kale' txistularien kalejira.

14:00 Mutrikuko Buruhaundiak eta Erraldoiak. Otxandio eta Bizkaiko gaiteruekin batera kalejira.

19:00 URDURI dantza taldearen ikuskizuna.

20:00 TABERNA IBILTARIA musika taldea.

22:30 JOTAKE taldearen erromeria.

UZTAILAK 19

UMEEN EGUNA

12:00 6. mailakoek eguneko txupina botako dute udaletxeko balkoitik.

12:05 Puzgarriak eta egurrezko 'Kalaka' jolasak.

12:30 Arimen meza.

13:00 II. Sukaldaritzza Erronka.

15:00 Bazkaria. Ondoren, izozkia.

17:00 OTXANDIOKO I. PENTATLOIA

19:00 Akelarre Txaranga.

19:30 Esku pilota partiduak: Peña II - Gabirondo / Salaberria - Aranguren. Ezkurdia - Iztueta / Artola - Martija

22:00 Kuadrillen arteko Play-backa.

22:30 Alkoholaren arriskuak prebenitzeko eta murrizteko karpa. Antolatzailea: Durangaldeko Mankomunitateko Adikzioen Prebentziorako Zerbitzua.

00:00 Altxa Porru! erromeria.

UZTAILAK 20

13:30 Kale kantu: Soinubil eta

Bakioko Txerokiak.

15:00 Herri bazkaria.

17:00 Tute, mus eta briska txapelketa.

UZTAILAK 22

SOKA DANTZA

20:00 VIII. Nesken Soka Dantza herriko plazan.

UZTAILAK 25

ESKU PILOTA

19:30 Herriko umeen pilota partiduak. ILLUNTZO PILOTA ELKARTEAREN ESKUTIK, ONDOREN: IV. Otxandioko goxua txapelketaren finala “JOSETXU, MOTXILE eta KAITOren OMENEZ”

UZTAILAK 26

SAN MARTIN EGUNA

12:00 Otxandioko bandaren kalejira.

12:15 Otxandioko Urbiribil dultzainero taldearen kalejira.

12:30 Meza San Martineko Baselizan.

14:00 San Martinen paella-txapelketa. Mahai eta aulkien erreserba egiteko: uztailak 23, 8:00-14:00 artean, udaletxean

bertan.

19:30 SAMA SIKU txaranga.

23:00 Kontzertuak herriko plazan:

Exaixu
The Clayton
Tatta eta Denso
Xauna Xauk

UZTAILAK 27

AGUR SANTAMAÑAK

07:30 Diana eta kalejira.

08:00 Sokamuturra.

12:00 Meza Santua.

13:00 Omenaldia 1936ko bonbardaketan hildakoei, Andikonan.

13:45 Limonada plazan.

14:00 Araiako udal bandaren kontzertua.

18:00 Herri-kirol ekitaldia plazan.

21:00 GAU ARG! erromeria.

00:00 Agur Santamañak.



OTXANDIOKO JAIK Kontzertua

Tatta & Denso entzuteko aukera egongo da, uztailaren 26an. Exaixu, The Clayton eta Xauna Xauk taldeek ere eskainiko dute kontzertua 23:00etan hasiko den jaialdian.

"400 parte-hartzaile batuko ditu Astro Trailek"

MENDI LASTERKETA Garaiko Asto Trail lasterketak bosgarren aldia egingo du zapatuan. Izen-ematea beteta dago eta 400 parte-hartzaile batuko dira lasterketa luzearen, laburraren eta mendi martxaren artean. Antolatzaileak oso pozik daude harreragaz

Joseba Derteano GARAI

Astelehen arratsaldean da Garain. Oinatz Urtiaga, Egoitz Gil, Unai Etxeita eta Gaizka Barrainkua plazan batu dira sasi-garbitzeko makina hartu eta mendira joateko. Ibilbideko tarte batzuk garbitu behar dituzte, zapaturako dena prest egon dadin. Hiru proba izango dira; mendi martxa 08:30ean hasiko da; lasterketa luzea (26 km) 09:30ean eta laburra (16 km) 09:45ean.

Izen-ematea agortuta dago. Pozik? Gaizka Barrainkua: Oso pozik. Sastrakak moztera joateko animoa ematen digu (barreak). 150 lagun apuntatu dira martxan; 160 laburrean eta 90 luzean.

Unai Etxeita: Batez ere azken astean nabarmen igo da izen-ematea. Aste batean 110 lagunek eman dute izena.

Zeren ondorio izan daiteke arrakasta hau?

U.E.: Aurreko urteetako *feedback*-ak onak izan dira eta Durangaldeko Kopak bultzada eman



Oinatz Urtiaga, Egoitz Gil, Unai Etxeita eta Gaizka Barrainkua.

digula uste dut. Herri txikia izanda ea zelan erantzuten dugun: 400 pertsona, eurekin datozenak... Jende asko da eta gure onena emango dugu. Jendeari denboragaz etortzea gomendatzen diegu, lasai aparkatu eta ibiltzeko.

Nortzuk izango dira irabazteko favorito?

Oinatz Urtiaga: Luzean Ibai Cebrian durangarra eta Unai Intxaurreaga nabarmendu daitezke mutiletan. Nesketan Oihana Kortazar eta Nerea

Amilibia, iazko irabazlea. Iaz laburra irabazi zuen Lola Oyarzabal luzera apuntatu da aurtan. Itsasne Urkiaga zornotzarra eta Ane Ibañez ere sartuko nituzke. Laburrean, berriz, Paul Bereziartua eta Kimetz Aranburu gizonetan eta Zutoia Odriozola emakumeetan, besteak beste.

G.B.: Zozketak egongo dira parte-hartzaileen artean: landetxean gaua, menu bat, masajeak, produktu otzarak...

Ibilbideak urteroko berdina dira?

G.B.: Aldaketa txiki bat dago. Iaz Jandolamendi kendu egin genuen baso lanengaitik eta aurtan berreskuratu egin dugu. Mendi-bide polita da. Hasieran, hirugarren kilometroan, hormigoizko zati bat kendu eta bide zahar bat berreskuratu dugu. 28 kilometrotik 26ra laburtu dugu luzea. Distantzia erakargarriagoa da, ibilbideko toki esanguratsu denak mantenduta.

Zenbat boluntario ibiliko dira lasterketa egunean?


G.B.: 56 inguru. 300 biztanleko herri batean hainbeste boluntario izatea pozgarria da.

Durangaldeko Koparen barruan egoteari zer onura ikusten diozue?

G.B.: Hasteko, ikusgarritasuna handitu da. Gero, koordinazio aldetik abantailak ditu. Izen-ematean denok plataforma bera erabilita prezio hobea lortu dugu eta berdina txipak egiterakoan.

Ander Jauregi eta Leire Uribe Kopako lider

Asto Trail lasterketa Durangaldeko Kopako laugarren hitzordua izango da. Une honetan Leire Uribe eta Ander Jauregi daude lider. Biak joan zen asteburuko Zaldutail lasterketari esker igo ziren lehen postura, Irazo Aranburu eta Itsasne Urkiaga ordezkatuta. Asto Trailen ostean, Kopako lau lasterketa geratuko dira: Mañaritik Atxera, Sorginen Lasterketa, Aramotz eta Aldapegora. ANBOTO Kopako babeslea da eta gertuko jarraipena egingo dio zapatuko lasterketari www.anboto.org atarian. Besteak beste, lasterketaren kronika eta argazki galeria zabala egongo dira ikusgai.



Ander Jauregi eta Leire Uribe

Gerrikaetxebarria garaile Ehunmiliak

Ehunmiliak mendiko ultratrail proba lehiatu zuten joan zen asteburuan Gipuzkoan. Ohi baino ibilbide laburragoa izan zen. Antolatzaileek 50 bat kilometro kendu zizkioten normalean 171 kilometro dituen lasterketari ekaitz arriskuagaitik. Gizonetan Ander Gerrikaetxebarria zornotzarrak irabazi zuen: 15.04.06. Emakumeetan Eva Lizarralde iurretarra podiumera igo zen bigarren postuan: 22.16.46. Maria Victoria Soler izan zen irabazlea. Ehunmiliak lasterketaz batera, beste bi proba ere lehiatu ziren: Goierriko Bi Haundiak (88km) eta Marimurumendi maratoia (42 km). Azken honetan, Markel Urigoitia otxandiarra bigarren sailkatu zen.





Lander Olaetxea, eskumatik hasita lehenengoa. SD EIBAR

Eibar taldeak Areitioko kirol azpiegitura estreinatu du

FUTBOLA Areitioko Kirol Hirian ekin dio denboraldiari Eibarrek, tartean, Lander Olaetxea abadiñarrak

J. D. MALLABIA

Aurreikuspen guztiak beteta, SD Eibarreko jokalariek Malla-biako Areition kokatua dagoen Kirol Hirian eman diote hasiera denboraldiari. Hasiera-hasieratik hori zen klubaren helburua, eta horrelaxe egin dute. Taldeko fitxaketa berriak aurkezteko baliatu zuten hitzordua, tartean, Lander Olaetxea abadiñarra. Talde armaginak ezagutzera eman zuen lehenengo fitxaketa izan da abadiñarrarena; hain zuzen ere, urtebeterako kontratua sinatu du Eibarregaz. Gi-jongo Sporting taldetik iritsi da

Olaetxea Eibarrera, bertan denboraldi bakarra egin ostean. Aurretik, Albaceten, SD Amorebieten eta Logroñesen aritu da, besteak beste. "Eibar moduko proiektu batera batzea berri pozgarria da. Urteak egon naiz etxetik kanpora eta niretzako Eibarrera batzea etxera bueltatzea da", azaldu zuen aurkezpenean.

Beñat San Josek gidatzen duen taldeak, 25 jokalarigaz ekin dio denboraldiaurreri. Denboraldia abuztuaren 16an hasiko du Eibarrek, Malagaren aurka, La Rosaledan.

Gurutze Frades garaipenagaz itzuli da triatloietara

TRIATLOIA Sei hilabeteko geldialditik bueltan Astudilloko triatloia irabazi zuen joan zen asteburuan

J.D. IURRETA

Gurutze Frades apirilean itzuli zen lehiara bost hilabeteko geldialdiaren ostean. Itzulera bikaina izan zuen, Logroñon 10 kilometroko lasterketa irabazita. Ordutik, apurka-apurka, proba luzeagoetan eta gogorra-goetan parte hartzen aritu da. Baina joan zen asteburuan itzuli zen bere eremu naturala den triatloira, Astudillon. Gainera irabazi egin zuen. "Nire errendimendutik alde positiboak eta negatiboak atera ditut. Baina batez ere, jendearen berotasuna daramat gogoan", adierazi du.



Gurutze Frades, erdian. @FEDETTRIATLONCYL



DRTko zuzendaritza berriko kideak. DRT ZALEAK

Zorion Zabala buru duen taldeak gidatuko du Durango Rugby Taldea

ERRUGBIA Zuzendaritza berria aukeratzeko batzarrera zerrenda bakarra aurkeztu zen, DRT Zaleak taldea

J.D. DURANGO

Durango Rugby Taldeak zuzendaritza berria du. Joan zen astean DRTren egoitzan egindako batzarrera zerrenda bakarra aurkeztu zen, DRT Zaleak plataforma, eta hautagaitza horrek irabazi zuen bozketarik egin beharrik gabe. Zorion Zabala izango da lehendakaria eta Virginia Sagarduy lehendakariordea. Beste kargu batzuk honako hauek dira: Idazkaria, Reyes Goikoetxea; diruzaina, Gotzon Gomez, eta, kirol koordinatzaileak, Iñigo Barrenetxea eta Uribarri Barrutieta. Zabalak aurrera begira

dituzten asmoen berri eman zien bertaratutakoei. Ondoren, lau urtetan klubeko lehendakari izandako Jose Ignacio Azurmen-di 'Txusmen'-ek hartu zuen hitza batzorde berriari ongi etorria emateko eta azken urteetan beragaz ibilitako zuzendaritza taldeko kideei esker ona adierazteko. Zuzendaritza berriak bere lan-ildo nagusiak zehaztu ditu ohar batean: kirol proiektua baloreen jartzea, klubak eskualdean zuen pisua berreskuratzea, egitura horiozontala bultzatzea eta baliabide ekonomikoak handitzea.



JOKALDIA

KARMELE GISASOLA ZENIKAZELAIA HERRI KIROLAK

Arauak

Herri kirolariok, badugu lurraldeetako federazioa, eta kirolari bakoitza bere lurraldean federatzen da (baina badaude kasu batzuk, non txapelketarik ez dagoelako edo beste arrazoi batzuegaitik, kirolariak beste lurralde batean ateratzen duen lizentzia). Lurraldeetako federazioez aparte, Euskal Herriko Herri Kirol Federazioa dugu, Abadiñon hain zuzen ere. Beraz, kirolari bakoitzak, bere lurraldeko txapelketak jokatzeaz gain, Euskal Herriko txapelketan ere parte har dezake.

Federazioek, hamazortzi modalitateentzako txapelketak antolatu behar dituzte. Kontuan izan, modalitate bakoitzaren barruan, hainbat txapelketa eraman behar izaten direla aurrera. Gizonezkoen aizkoran, adibidez, hiru kategoria daude eta kategoria bakoitzean, txapelketa, eta hori jokatu aurretik, kanporaketak. Horrez gain, emakumezkoen aizkoran, kanporaketa bakarra eta txapelketa. Gizonezkoen harrija-

sotzean, bi txapelketa: harri haundiak eta harri txikiak. Momentuz, emakumezkoena, bat bakarra dago. Sokatiran pisuaren arabera txapelketak daude; ez dago bat eta bakarra. Ba horrela gainontzeko modalitateekin ere. Ez dira hamazortzi txapelketa bakarrik antolatu behar. Modalitate bakoitzari dagozkion kanporaketa eta kasuan kasuko txapelketak ere bai.

Txapelketa hauetan, suposatzen da, lurraldekoetan baino jende gehiagok parte hartu beharko lukeela, azken finean, zazpi probintzietako kirolariek hartzen dutelako parte. Baina, sarritan, ez da horrela izaten. Normalean, lurraldekoetan kasu gehiagok egin izan ohi diote kirolariari (agenda antolatzerako orduan,...). Baina federazio handietan gauzak ezberdinak dira.

Hain ezberdin dira, non lurralde batzuetan orain arte jokatu ez diren txapelketa batzuk jokatu diren, eta euskal herrikoan ez. Modalitate guztietan, gizonezkoen txapelketarako arauak jarrita daude, baina

emakumezkoen txapelketa batzuk, oraindik ez dira jokatu. Eskerrak lurraldeetako federazioak horri buelta bat ematen hasi diren.

Handietan, handiak izaten dira arauak, eta arau batzuk ez dira berdinak Euskal Herriko Federazioan eta lurraldekoetan. Adibidez, Euskal Herriko Txapelketa baterako izena eman baduzu, eta azken momentuan gaixotu bazara edo min hartu baduzu, medikuaren justifikantea eramanda ere, hurrengo hamabost egunetan ezin duzu beste txapelketa edo erakustaldirik egin. Gaixoaldi batzuk, bi-hiru egun iraun dezaketela kontuan hartuta, txapelketara ez bazoaz, ez dezazula beste txapelketarik izan hurrengo hamabost egunetan, bestela bi txapel irabaztetik oso urrun geldituko zara. Eskerrak txikietan, lurraldekoetan, arauak ezberdinak diren eta ez diren hamabost egun pasatu behar beste txapelketa batean parte hartzeko.



Zaldibartarrak irteera hartzeko prest.



Zaldu Traileko esatariak.



Xuban Muniozguren.



Amagoia Iribar.



Lasterketa luzeko irteera.



Mestafa Mahfoud.

Giro paregabera eta parte hartze zabala Zaldibarko Zaldu Trail lasterketan

Zaldu Trailen lasterketa luzea eta laburra jokatu ziren. Lasterketa luzean Mestafa Mahfoud eta Leire Uribe izan ziren nagusi. Lasterketa laburrean, Xuban Muniozguren eta Amagoia Iribar. Lasterketako argazki guztiak www.anboto.org-en daude ikusgai

Maialen Zuazubiskar ZALDIBAR Zapatuan Durangaldeko Kopako hirugarren proba jokatu zen Zaldibarren, Zaldu Trail. Lasterketaren hirugarren edizioan Mestafa Mahfoud eta Leire Uribe izan ziren nagusi. Gizonezkoetan, lasterketa oso parekatua egon zen: lasterketa osoan zehar, lehenengo hiru korrikalariak

elkarregaz joan ziren eta, azkenean, garaipena Mestafa Mahfoud

LEIRE URIBEK AZKEN BI LASTERKETETAN GARAIPENA LORTUTA KOPAKO LIDERGOA ESKURATU DU

bilbotarrarentzat izan zen. Peio Lagos geratu zen bigarren eta Ander Jauregi hirugarren. Jau-regik, hirugarren postu honegatz, Durangaldeko Kopako lidergoa eskuratu du.

Emakumezkoetan, Berrizko Amaraune Mendi Lasterketan garaipena lortu zuen Leire Uribe izan zen nagusi. Uribek



Mikel Arroita antolakuntzako kidea.

2:05:21ko denboran egin zituen lasterketako 19 kilometroak. Bigarren sailkatua Lola Oyarzabal (2:05:58) izan zen eta hirugarrena, Zutoia Odriozola (2:07:43).

Kopako sailkapenari dagokionez, Leire Uribe berria da 200 puntugaz, Lola Oyarzabal eta Uxue Barrutiaren aurretik.

Muniozguren aurkari barik Lasterketa laburretan Xuban Muniozguren ez du aurkaririk;

hirutik hiru garaipen daramatza. Mallabian, Berrizen eta Zaldibarren nagusitasunez irabazi du Markiñako korrikalariak. Bigarren sailkatua etxeko korrikalaria den Gorka Arrizabalaga izan zen, eta hirugarren postua Ibai Perezek lortu zuen.

Emakumezkoetan, Amagoia Iribarrek irabazi zuen 1:25:00ko denboragaz. Bigarrena, Alaitz Egaña izan zen eta hirugarrena, Maria Tinoco.



Lasterketa laburreko irteera.



Zutoia Odriozola.



Helmugako poztasuna.



Lasterketa amaierako nekea.



Besarkadak Zaldibarko helmugan.



Aimar Larrea irteera hartu baino lehen.



Lasterketa osteko besarkadak.



Leire Uribe, lasterketa luzeko irabazlea.

INMOBILIARIAK



F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



11.000 €

SAN INAZIO AUKERA. Garajea.



C.E.E.:B 250.000 €

DURANGO 70 m2-ko apartamentua. Jantzia. Terraza. Garajea eta 12 m2-ko trastelekua.



C.E.E:E 315.000 €

J.M. ALTUNA 115 m2. 3 logela, sukalde-jangela, egongela handia eta 2 komun. Garajea. Ganbara. Berriztatua. Jantzia.



285.000 €

SAN ROKE 85 m2. 2 logela, 2 komun, sukaldea, esekitokia eta egongela. Ganbara. 2 kotxerentzako garajea.



C.E.E.= E. 149.000 €

SAN FAUSTO 63 m2. 3 logela, komuna eta sukaldea.



Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO
Goienkalea: Apartamentua. 60 m2. Berriztatzeko. **125.000 €**
Kurutziaga: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Berriztatzeko.
Barrenkalea: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.
Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.
Barrenkalea: Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekua.

ATXONDO
Atxondo: 3 logela, sukaldea, egongela ederra eta komuna. 2 balkoi. Igogailua. Gasa.
Atxondo: 3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.

LURSAILEK SALGAI
Iurreta: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
Muxika: Urrutxua: 90.000 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria. **90.000 €.**

Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.
Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.
Atxondo: Marzana auzoan. 7.500 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria.
Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

BULEGOAK ALOKAIKIRUAN
ABADINO
30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.
DURANGO
Ermodo kalean. 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

LOKALAK ALOKAIKIRUAN
Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.
Elorrio: 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.

LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI
IURRETA
Arriandi industrigunean. 111 m2. Bulegoa eta komuna.
Berriz: Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.



Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



C.E.E: F. 179.000 €

DURANGO Askatasun Etorbidea: 63 m2. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna duxtagaz. Berrikuntzak behar ditu. Leihoak oraintsu aldatuta. Berrantolaketa bat egiteko aukera. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du (iparraldea) Pisu altua eta argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak. ITE-a pasatuta.



C.E.E: F. 195.000 €

DURANGO Artekale: 90 m2. Egongela, sukalde jantzia, 5 logela eta komuna. Egoera onean. Etxebizitza altua. Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialdea). Leku onean kokatua, zerbitzuguneetatik gertu. ITE-a pasatuta. Ez du hobekuntzarik behar.



C.E.E: E. 360.000 €

DURANGO Franzisko Ibarra: 107 m2. Hall-a, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kapora ematen du. Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. Garajea eta ganbara.



C.E.E: E. 129.000 €

IURRETA Bixente Kapanaga: 81 m2. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du.(ipar, hego-ekialdea) Etxebizitza altua eta argitsua. Leku onean kokatua. Jantzita.



C.E.E.E. 190.000 €

BERRIZ Okango auzoa: Familia bikoa. 180 m2. (beheko eta lehen solairua eta ataripea) + 25 m2-ko lorategiagaz. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna, bainugela eta 40 m2-ko espazio diafanoa. Egitura osoa egoera onean dago. Bizitzan sartzeko moduan. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriz eta Zaldibar artean kokatua.



Barrenkalea, 15 behea • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

DURANGO
Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**
Frantzisko Ibarra: 4 logela, egongela terrazagaz, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. igogailua. **335.000 € / E.E.Z=E**
Juan Antonio Abasolo: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Konpontzeko. **170.000 € / E.E.Z=F**
Juan de Olazaran: 3 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

ABADINO
Dendarikoa: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. 215.000 .
Eskolakoa: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **325.000 € / E.E.Z=G**
Olalde kalea: 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **274.000 € / E.E.Z=B**
Txanporta plaza: Eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **253.000 € / E.E.Z=Bidean**

ATXONDO
Artekalea, 13: Konpontzeko baserria lurzoruagaz. **300.000 €.**

BERRIZ
Murgoitio auzoa: Berreraikitzeo baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000€.**
Eitua: Berreraikitzeo baserria lurzoruagaz. **350.000 €.**

GARAI
Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitzeo lurzoruak. Aukera ezberdinak.

IURRETA
Bixente Kapanaga: Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 95.000 € - ORAIN 80.000 € / E.E.Z=F**

IZURITZA
Elizalde auzoa: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **Lehen 570.000 € orain 530.000 € / E.E.Z=E**

GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO
DURANGON SALGAI
Alluitz: garaje itxia. **24.000 €.**
Kurutziaga: garajea. **18.000 €.**
Kurutziaga: garaje itxia. **28.000 €.**
Madalenoste: garaje itxia eta trastelekua. **42.000 €.**
DURANGON ALOKAGAI
Muruetatorre: garajea. **75 € / hilean.**
Alluitz: garaje itxia. **75 € / hilean.**
Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.

LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI ALOKATZEKO
DURANGON SALGAI
Aliendalde auzunea: 250 m2-ko pabilioia. **1600 € /hilean.**
Landako etorbidea: 50 m2-ko lokala. **600 € / hilean.**
IURRETAN SALGAI
Padureta: 240 m2-ko pabilioia. Salgai: **370.000 €**
Alokagai: **1.680 € /hilean.**



LAU-HORTZA

MARKEL ONAINDIA
TXABARRI

Izaskun

Eskaieretako pauso bizkorrak entzutean, bagenekien ailegatu zinela. Atetik sartu, purrustada xeblebre bat bota, gero txiste beltz bat, eta mahaira gereziak, mandarinak edo pastak ekartzen zenizkigun. Puntkia bezain gozoa, gure Izaskun. Trasteak di-da batean ordenatu, eta lanera. Batetik bestera arin, tipi-tapa, tipi-tapa, tipi-tapa... kalean ere beti gainerakoak baino pauso bat aurrerago, bidea erakutsi guran bezala. Ez zitzaizun ezer eskapatzen, galdera egin orduko erantzuna emanda zeneukan, eta ardura guztien jakitun izan zara. Beno, agian ez dakizu zenbaterainoko maitte izan zaitugun.

Herritik jasoja herrira bueltatzea da kronistaren zentzua, eta zu horretan erreferente izan zara. Gertuko kazetari eta ekintzailea, beti pasioz, Durangaldearen eta euskal kulturaren alde beharrean. Ondare hori guztia zabal dadila Gerediagako foru zelaitik lau haizetara, zure ahotsa euskal herrietan transmititu den moduan. Oihartzuna entzun dezaket oraindik.

Arin, arinegi joan zara eta sinistu ezinik geratu gara. Barbaridade bat botako zaitugu faltan. Eskerrik asko urteotan bidegile izatearren, edo hobeto esanda, bidea erakustearren. Zure pausoen atzetik egingo dugu lan. Musu bat, Izaskun Ellakuriaga Bustinza.

AKUILUA



"Txakurragaz gozatu egiten dut txapelketetan"

INAZIO IRAKULIS TXARTERINA ARTXATE ELKARTEKO KIDEA

Arraza libreko artzai txakur txapelketetan parte hartzen du. Zornotzan jokatu den V. Artzai Txakur Txapelketan parte hartuko du Beltz txakurragaz, uztailaren 20an

Aitziber Basauri ZORNOTZA

Arraza libreko artzai txakur txapelketetan bete-betea sartuta dabil Inazio Irakulis (Etxano, 1953), maiatzean denboraldia hasi zenetik. Epaile ere jarduten du, eskarmentua duen beste lagun batez.

Kasualitatez sartu zinen artzai txakurren txapelketen munduan, ezta?

Bai. Lagun batek txakurkume bat oparitu zidan, baldintza ba-

tegaz: txakurra hezi behar nuen. Horretarako leku bat topatu nuen, Diman. Urte bi aritu ginen lanean, eta artaldearen gobernatze-ko oinarritzak ikasi nuen: *etzan*, *eskuma*, *ezkerra*... Bertan, Artxateko kide bat ezagutu nuen, eta elkartearen sartzera animatu ninduen.

Orduan hasi zinen txapelketetan?

Bai, badira 10 urte elkarte-ko kide naizela. Orduan hasi nintzen

ikasitakoa txapelketetan praktikan jartzen.

Txapelketetan aritzeak badu bere zailtasuna.

Plaza gizona izan behar da, urduri egonez gero ez dago zereginik-eta. Gainera, txakurra ondo hezita egon behar da, sekulako konfiantza izan behar duzu berarengan: agindu azkar-rrak eta argiak eman behar zaizkio, momentuan. Bestalde,

txakurra ardiak hartzen dituenetik artaldeari begiratu behar zaio, une oro. Aurrean doan ardiak markatzen du norabidea. Txakurra lasai egotea ere oso garrantzitsua da.

'Beltz'-ekin lehiatzen duzu orain. Nolakoa da bion harremana?

Momentu oro dakit zer egingo duen, aginduak nola beteiko dituen. Txapelketetarako oso ondo ezagutu behar da txakurra. 'Beltz' bizia da, eta badakit ezin dudala larregi bizitu. Lasaitu egin behar dut. Oso arina da, eta hori ere oso kontuan hartu behar dut. Nire esanei adi dago beti.

Nola bizi dituzu txapelketak?

Gozatu egiten dut txakurragaz, hasi eta bigarren urtean uzteko zorian egon nintzen arren. Oso urduri jartzen nintzen, txakurra zer egingo zuen beldurrez..., baina buelta ematea lortu nuen. Neure mailan lehiatzea, gozatzea erabaki nuen; txarto irteerakoa konpondu eta hurrengoari begiratzea. Orduan, lasaitzen hasi nintzen. Etxean ikasitakoa erakustea, gehiago ez diot eskatzen txakurrari. 'Beltz' sasoi bete- dago; baina, aurtan, 'Hiru'-rekin ere hasi naiz. Harek zer dakarren eta nola moldatzen den ikusteak ere ematen dit gozatua.

Zer egiten zaizu gaxena?

Proba guztietan aritzea gustatzen zait, denetatik ikasten delako zerbait. Iparraldean bestelakoak dira probak, bada, bertara joatea erronka lez hartzen dut.

"ETXEAN IKASITAKOAK ERAKUSTEA, BESTERIK EZ DIOT ESKATZEN TXAKURRARI"

